

# Subjektu ezabatuko inpertsonalak: euskara, katalana eta gaztelania, gai beraren gaineko bariazioak<sup>1</sup>

*Subject-suppressing impersonals:*

*Basque, Catalan and Spanish, variations on the same subject*

Beatriz Fernández\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Ane Berro

Deustuko Unibertsitatea

Manuel Pérez Saldanya

Univ. de València

Jon Ortiz de Urbina

Deustuko Unibertsitatea

**ABSTRACT:** In this paper we have analyzed subject-suppressing impersonals, namely, structures with an implicit and indefinite subject. In Basque and Catalan, these structures have been considered detransitivized, given that, in transitive structures, a single argument is overtly real-

---

<sup>1</sup> Lan honen lehen eta bigarren egileek Eusko Jaurlaritzaren (IT1439-22) eta Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Teknologiako Ministerioaren (PID2023-147383NB-I00) diru laguntza jaso dute. Hirugarren egileak, bere aldetik, ministerio beraren PID2021-128381NB-I00 proiektuaren babes du. Lan hau José Ignacio Hualde ikerkide eta adiskideari eskaintzen diogu, euskalari zein erromanista bikainari, berak horren maiteak dituen hizkuntzen morfologia eta sintaxiaren xarmaz ahaztu ez dadin, eta ahal dela, ahaztu ez gaitzan.

Lan honetan, Leipzigeiko glosak ez ezik, beste zenbait laburdura ere baliatu ditugu: ACC = akusatibo; CL = klitiko; COMP = konparatibo; COND = baldintza; DET = determinatzaile; F = femenino; FUT = gerroaldi; IMPER = inpertsonal; INF = infinitibo; IPFV = inperfektibo; M = maskulino; N = neutro; NOM = nominatibo; NVIR = ez-biril; P = preposizio; PL = plural; PTCP = partizipio; PST = iragan; REL = erlatibo; SG = singular; SUBJ = subjuntibo; SUBR = menderagailu; 1 2 3 = lehen, bigarren eta hirugarren pertsona.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Beatriz Fernández. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU), Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – [beatriz.fernandezf@ehu.eus](mailto:beatriz.fernandezf@ehu.eus) – <https://orcid.org/0000-0002-7632-7777>

**Nola aipatu / How to cite:** Fernández, Beatriz; Berro, Ane; Pérez Saldanya, Manuel; Ortiz de Urbina, Jon (2023). «Subjektu ezabatuko inpertsonalak: euskara, katalana eta gaztelania, gai beraren gaineko bariazioak», *ASJU*, 57 (1-2), 313-342. (<https://doi.org/10.1387/asju.25955>).

Jasoa/Received: 2022-07-01; Onartua/Accepted: 2022-10-23.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

ized instead of two. In Basque *izan* 'be' auxiliary is selected over *\*edun* 'have' and in Catalan the ES clitic is introduced. In this paper we demonstrate that in these structures the subject is syntactically present and, therefore, these structures should be considered subject-suppressing impersonals as characterized by Blevins (2003). Nonetheless, morphology leads us to think differently in some cases: both in Catalan and in Spanish the theme argument of ES/SE-structures sometimes behaves like a subject, as it agrees with the auxiliary verb and does not accept a clitic.

KEYWORDS: Impersonals; subject-suppressing impersonals; passive; the ES/SE clitic; Basque; Catalan; Spanish.

**LABURPENA:** *Lan honetan subjektu ezabatuko inperzonalak aztertu ditugu, alegia, subjektu inplizitua eta zehaztugabea duten egiturak. Euskaraz zein katalanez, egitura horiek iragangaiztutzat hartu izan dira, aditz iragankorren kasuan argumentu bi gabe, bakarra ahoskatzen delako. Euskaraz, \*edun aditz laguntzailearen ordez izan erabiltzen da, eta katalanaren kasuan ES klitikoa gaineratzen da. Lan honetan erakusten dugu egitura hauetan subjektua sintaktikoki indarrean dagoela eta, hortaz, Blevinsen (2003) subjektu ezabatuko inperzonalizat hartu behar direla. Nolanahi ere, morfologiak bestela pentsatzera eramaten gaitu kasu batzuetan: katalanez zein gaztelaniaz, ES/SE-egituretako gai argumentuak subjektu baten modura jokatzeko du batzuetan, aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako eta klitikorik onartzen ez duelako.*

**HITZ GAKOAK:** *inperzonalak; subjektu ezabatuko inperzonalak; pasiboa; ES/SE klitikoa; euskara; katalana; gaztelania.*

## 1. Atarikoak

José Ignacio Hualdek bere ibilbide akademiko oparoan zehar bereziki fonetika-fonologia eta diakronia eremuak sakon esploratu baditu ere, oso gogoan izatekoak dira morfologia eta sintaxi sinkronikoan aspaldi egin zituen lanak, hala nola, 1986ean ASJU<sup>n</sup> argitaratu zuen *Case assignment in Basque* edo 1987ean aldizkari berean Jon Ortiz de Urbinarekin batera plazaratutako *Restructuring with ARI*. Bigarrenean, *ari* ezaugarritzatu nahian, *iragangaiztaile* (ing. *detransitivizer*) bat izango ote zen esploratzen zuten bi egileok, lan berean bazterrean utzi zuten hipotesia.

Guk lan honetan, euskararen nahiz katalanaren literaturan, oro har, egitura *iragangaiztutzat* (ing. *detransitivized*) hartu diren bi egitura konparatu eta aztertuko ditugu. Batetik daude euskaraz *inperzonal* deitura jaso duten egiturak (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003; Rodet 1992; Albizu 1997, 2001; Fernández & Berro 2021; Berro, Odria & Fernández 2022, 2024), nahiz eta *erdipasibo* ere iritzi zaien (Brettschneider 1979; Ortiz de Urbina 2006; de Rijk 2008). Inperzonalaz ari garenean, (1b) eta (1d) bezalako egiturez ari gara, (1a) eta (1c) egiturekin harremanetan daudenak, hurrenez hurren. (1a) eta (1b) adibideetan *bildu* aditz iragankorra daukagu; (1c) eta (1d)-n, aldiz, *lan egin* inergatiboa.

- (1) a. *Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.*
- b. *Sagarrak bildu dira.*
- c. *Aurten baserritarrek etenik gabe lan egin dute.*
- d. *Aurten etenik gabe lan egin da.*

Bestetik katalanaren (2a) eta (2c), aditz iragankorreko eta inergatiboko perpaus arruntak dira: bi argumentu ditu lehenak eta argumentu bakarra bigarrenak. Bes-

talde, (2b) eta (2d) bezalako egiturek askotariko deiturak jaso dituzte katalanaren gramatika. Aditz iragankorreko (2b) egitura bezalakoei *passives pronominals* ‘pasibo pronominalak’ edo *passives reflexes* ‘pasibo erreflexuak’ deitu zaie, eta aditz inergatiboko (2d) bezalakoei *impersonals pronominals* ‘inpertsonal pronominalak’ (Bartra 2002: 2151). Bestalde, egitura bati zein besteari Bartrak (2002: 2149-2165) *construccions pronominals de subjecte inespecific* deritze, hau da, ‘subjektu zehaztugabeko egitura pronominalak’, eta *inespecific*-en ordez *indefinit* darabilte Institut d’Estudis Catalansen (2016: 894-898) *Gramàtica de la llengua catalana* lanean —aurrerantzean GLC (2016)—. Alabaina, deitura berriekin batera, bai Bartrak bai GLCk (2016) tradiziozko deiturak ere erabiltzen dituzte (2b) eta (2d) izendatzeko —ikus baita Hualde (1992: 297-298) eta Wheeler, Yates & Dols (1999: 29.2 atala)—.

- (2) a. *Els pagesos han collit les pomes.*  
 DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.’
- b. *S’han collit les pomes.*  
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Sagarrak bildu dira.’ (Bartra 2002: 2151)
- c. *Aquest any els pagesos han treballat molt.*  
 hau.M.SG urte.M.SG DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3SG lan egin.PTCP  
 asko  
 ‘Aurten baserritarrek lan handia egin dute.’
- d. *Aquest any s’ha treballat molt.*  
 hau.M.SG urte.M.SG ES.haver.3SG lan egin.PTCP asko  
 ‘Aurten lan handia egin da.’ (Bartra 2002: 2151)

Eztabaida genezake ea (2b) eta (2d) egitura beraren bi adierazgarri diren eta orduan deitura bera emango zaien, edo ez diren eta, hortaz, komeni ote den *pasibo* eta *inpertsonal* deiturez bereiztea. Bestalde, *pronominal* deitura ES izenordainaren agerpenetik dator. Izan ere, egitura honetan, ES hirugarren pertsonako izenordaina edo klitikoa agertzen da —(2b) adibidean, *s’* gisa eman dena<sup>2</sup>—. ES klitikodun egitura horren kidekoak beste hizkuntza erromantze batzuetan ere aurki daitezke, hala nola, gaztelaniazko SE klitikodunak (Mendikoetxea 1999, 2012), italieraren SI-dunak (Cinque 1988) eta frantsesaren SE-dunak (Zribi-Hertz 1982) —ikus Cabredo-Hofherr (2017) hizkuntza erromantzeen gaineko ikuspegi baterako—. Guk gure aldetik (*subjektu zehaztugabeko*) *ES-egiturak* deituko diegu, Bartraren (2002) eta GLCren (2016) deitura apur bat egokitu eta laburtuz, eta deitura bakarraren atzean, *ñabardurak ñabardura*, egitura bat bera dagoela berretsiko dugu (baina ikus 2.2 atala eztabaidarako).

Lan honetan erakutsiko dugunez, morfologikoki irudi lezakeenaren kontra, sintaktikoki oso antzeko egiturak dira euskararen inpertsonala —(1b) eta (1d)— eta katalanaren ES-egitura —(2b) eta (2d)—. Izan ere, gure ustez, egitura biak, *ñabardurak*

<sup>2</sup> Hirugarren pertsonako klitiko honek *es*, *s’*, *-es* eta *’s* aldaerak ditu aditzarekiko kokalekuaren araber eta berarekin konbinatzen den segmenturen arabera (GLC 2016: 208).

ñabardura, Blevinsek (2003) pasiboetatik bereizten dituen *subjektu ezabatuko inperstonaltzat* har litezke (ing. *subject-suppressing impersonals*) —ikus Fernández & Berro (2021) eta Berro eta beste (2022) euskararako—. Lehenik eta behin, aditz iragankorak ez ezik, —(1b) eta (2b)— aditz inergatibo —(1d) eta (2d)— eta inakusatiboak ere onesten dituzte biek ala biek. Bigarrenik, subjektu ezabatu bat dute. Hirugarrenik, subjektu ezabatu hori gizakia da eta zehaztugabea. Laugarren eta azkenik, katalanaren oso erabilera mugatuan izan ezik, ez dute egile izaerako zeharkako sintagmarik (ing. *oblique phrase*) onartzen, hots, ingelesezko *by*-phrase bezalakorik. Laburbilduz, lan honetan erakutsiko dugu katalanaren (2b) ES-egiturak izatez subjektu ezabatuko inperstonalak direla.

Euskarari dagokionez, bestalde, Fernández eta Berrok (2021) erakutsi dute ezauzgarri batek bereizten dituela euskal inperstonalak subjektu ezabatuko inperstonaletatik, hots, iragangaiztasun morfologikoak. Izan ere, (1b) eta (1d) bezalako egituretan *izan* aditz laguntzailea hautatzen da eta ez *\*edun* (Hualde 2003). Beste alde batetik, (1b) egituraren kasuan, agerian bederen argumentu bakarra dago, hots, gaia, eta absolutibo kasuaz gain, absolutibo komuntadura ere jasotzen du aditz inflexioan. Alde horretatik, beraz, egitura iragangaiztat hartu beharko genuke, euskararen gramatikan hartu izan den bezala (ikus, besteak beste, Ortiz de Urbina 1989, 2003; Albizu 1997; Fernández & Berro 2021). Alabaina, paradoxikoki, itxura morfologikoa gorabehera, euskal inperstonaletan semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere subjektu ezabatu bat dago (Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Batetik, adjektibo depiktiboak zilegizatzen ditu; bestetik, subjektu ezabatuaren eta osagarriaren artean, jabetza besterenezina adieraz daiteke, subjektua delarik jabea eta osagarria jabetza (Ormazabal & Romero 2019 gaztelaniarako). Hortaz, oso litekeena da, morfologikoki egitura iragangaitza iruditzen arren, sintaktikoki egitura iragankor bat izatea, Berro eta beste (2022) euskararako argudiatu duten bezala.

Hemen, katalanaren ES-egituretako subjektu ezabatuaren jokabide sintaktikoa zein den arakatuko dugu aipatu bi test hauetara begira. Ikusiko dugunez, subjektu ezabatuak jokabide bera du euskaraz zein katalanez. Azkenik, katalanez, ez dirudi ES-egituren itxura morfologikoak nahitaez egitura iragangaitz bat erakusten duenik, ez behintzat, ES hori iragangaiztaile bat bezala interpretatzen ez badugu. Gure ustez, ES izenordainak ez du egitura iragangaizten eta ES-egitura izatez egitura iragankorra da. Hortaz, subjektu zehaztu gabeko egituretako ES hori iragangaiztaile bat delako hipotesia bazterrean utziko dugu, Hualde eta Ortiz de Urbina aspaldi, 1987an, ARI-rekin egin zuten bezala. Nolanahi ere, aztergai honek uste baino ertz gehiago ditu, batez ere, gai argumentuaren jokabide morfologikoari erreparatzen badiogu. Katalanaren ES-egituren parekoak liratekeen gaztelaniazko SE-egituretan SE-inperstonalen eta SE-pasiboaren arteko bereizketa egin izan da tradiziozko gramatiketan. Lan honetan erakutsiko dugu aditz laguntzailearekiko komuntadura eta klitikoak onartzeko ezintasuna direla horretarako arrazoi morfologikoak. Dena dela, morfologia gorabehera, ez dirudi SE-pasiboak benetako pasibotzat har daitezkeenik, euskaraz eta katalanez bezala, gaztelaniazko SE-egituretan ere sintaktikoki indarrean dagoen subjektu ezabatu bat baitago (baina ikus Ormazabal & Romero 2019 beste hipotesi batarako).

## 2. Euskararen inperpersonalak eta katalanaren ES-egiturak subjektu ezabatuko inperpersonalak ote?

Atal honetan euskararen inperpersonalak eta katalanaren ES-egiturak aurkeztuko ditugu labur —(2.1) eta (2.2) atalak, hurrenez hurren—. Euskarari dagokionez, Fernández eta Berrok (2021) eta Berro eta bestek (2022) berriki idatzi dituzten lanetara joko dugu; katalanari dagokionez, berriz, Bartraren (2002: 2149-2165) eta GLCren (2016) deskribapen eta azterketaz baliatuko gara. Horren ondotik (2.3 atala) bi hizkuntzetako inperpersonalak konparatu eta aztertuko ditugu Blevinsek (2003) subjektu ezabatuko inperpersonalarako ezartzen dituen ezaugarrien arabera.

### 2.1. Euskararen inperpersonalak

Euskaraz *inperpersonal*a deitu zaio (1b) egiturari,<sup>3</sup> hemen (3b) gisa errepikatuko dena (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003; Rodet 1992; Albizu 1997, 2001; Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Egitura hori iragangaiztutzat hartu izan da literaturan, eta morfologikoki halakoxea dela dirudi, izatez *bildu* aditza iragankorra delako. Hortaz, egitura ez da berez iragangaitza, iragangaiztua baino. Konpara bedi (3b), (3a) kideko egitura iragankorrek.

- (3) a. *Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.*  
b. *Sagarrak bildu dira.*

Bi egituren arteko konparazioan badira bereziki azpimarratu daitezkeen zenbait alderdi. Lehenik eta behin, egitura iragankorrak (3a), bi argumentu ditu, hots, egilea eta gaia, eta ergatibo eta absolutibo kasuez markaturik daude, hurrenez hurren. Aldiz, egitura inperpersonalak (3b) (ageriko) argumentu bakarra du, gaia alegia. Argumentu horrek egitura iragankorrean daraman kasu bera du, hots, absolutiboa. Bigarrenik, egitura iragankorrean (3a) hautatu den aditz laguntzailea \**edun* da; egitura inperpersonalean (3b), berriz, *izan* aditz laguntzaile iragangaitza. Hirugarren eta azkenik, \**edun* aditz laguntzaileak ergatibo eta absolutiboarekiko komunztadura erakusten du egitura iragankorrean (3a) eta *izan* aditz laguntzaileak absolutiboarekikoa inperpersonalean (3b) —aditz laguntzailearen hautaketarako eta aditz morfologiarako, ikus besteak beste Hualde (2003)—. Inperpersonalak, beraz, egitura iragangaitza dirudi. Alabaina, aldeak alde, euskararen inperpersonalak estuki lotzen zaio Blevinsen (2003) subjektu ezabatuko inperpersonalari, eta horrek garamatza pentsatzera sintaktikoki egitura iragankor bat dela. Izan ere, mota horretako inperpersonalak erakusten dituzten hizkuntzetan, hala nola, eslaviarretan, egitura iragankorrei dagozkien ezaugarriak gordetzen dituzte. Hala, adibidez, polonieraren *-no/-to* egituretan, gaiak akusatibo marka gordetzen du —ikus baita Siewierska (1988) eta Kibort (2003) polonierarako, eta Fernández & Berro (2021: 5. atala) euskararen eta polonieraren arteko konparazioarako, beste hizkuntza batzuen artean—. Hortaz, subjektu ezabatuko inperpersonalak iragankorrak dira, eta euskararen inperpersonalak sintaktikoki ere bai (Berro eta beste 2022).

<sup>3</sup> Dena dela, *inperpersonal* deitura askotariko egiturei egotzi zaie euskaraz, ez bakarrik hemen aztergai dugunari —ikus Fernández & Berro (2021: 1 oin-oharra)—.

## 2.2. Katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egiturak

Katalanaz den bezain batean, subjektu zehaztugabeko ES-egiturak badu ezaugarri morfologiko bat gainerako hizkuntza erromantzeekin bateratzen duena (Cabredo-Hofherr 2017), hau da, ES hirugarren pertsonako izenordaina ageri da delako egituran. Pertsona izenordain hori bihurkarizat hartu izan da, eta halaxe deritzate adibidez Bartrak (2002: 2150, 2151) edo *GLCk* (2016: 894). Izatez, egiturari ematen zaizkion askotariko deituetako bat, hots, *pasibo erreflexua* izenordain *bihurkari* honetatik dator. Bartrarena (2002) da (4b) adibidea, gorago (2b) gisa eman duguna. Kideko egitura iragankorra da (4a)/(2a).

- (4) a. *Els pagesos han collit les pomes.*  
 DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.’  
 b. *S’han collit les pomes.*  
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Sagarrak bildu dira.’ (Bartra 2002: 2151)

Nolanahi ere den, label hutsa dirudi *bihurkari* deiturak, morfologiatik sintaxira isuri dena. Hortaz, klitiko hau benetan bihurkaria ez bada, beste zerbaiz izan beharko da. Honi dagokionez, antzeko zeregina egotzen diote gramatikari katalanek. Bartraren (2002) eta *GLCren* (2016) arabera, adibidez, ES hirugarren pertsonako izenordain horrek subjektua agertzea oztokatzen du (Bartra 2002: 2150, 2151; *GLC* 2016: 894, 896). Hala, (4a) egitura iragankorren, subjektua (*els pagesos* ‘baserritarrek’) agertzen da; ez, ordea, ES-inpertsonalean (4b). Noski, subjektuaren (hots, egilearen) agerpena oztokatzen bada, orduan pentsatzekoa da, Bartrak (2002: 2150) dioen bezala, gaia dela ES-egituraren subjektu sintaktikoa. *GLCk* (2016: 23.3.1.a) bere aldeetik ez du zehatz-mehatz esaten gaia subjektua denik, baina bai ‘subjektu gramatikal gisa’ jokatzeko duela. Izatez, gainera, (4b) adibidean, gaiarekin komunztadura egiten du *haver* laguntzaileak, eta katalana subjektu komunztadura duen hizkuntza denez, horrek pentsaraz liezaguke gaia (*les pomes* ‘sagarrak’) (4b) adibidean) dela subjektua eta ez beste ezer. Hala balitz, orduan, *pasibo* deiturak izango luke bere arrazoibide morfosintaktikoa. Hau da, (4b) egituraren hizkuntza tipologian, besteak beste, *pasibo* egiturari egotzi izan zaizkion ezaugarriak beteko lirateke: i. egiturak marka morfologiko bat du, ES alegia, eta marka hori iragangaiztaile gisa<sup>4</sup> interpreta liteke; ii. egitura iragangaiztua izanik, osagarritik subjektura *goratu* (ing. *promote*) da gaia; eta iii. egilea *beheratu* (ing. *demote*) egin da ezabatzeraino. Hortaz, pasibotzat jo denean, ez dirudi okerreko bidetik jo denik.

Bartrak dioenez (2002: 2160-2162), ES-egiturei dagokienez, erdialdeko katalanean, Balear irletakoan eta valentzieraz, aditzak komunztadura zaintzen du gaiarekin. Aldiz, ipar-mendebaldeko hizkeretan, normalean ez da komunztadurarik zaintzen

<sup>4</sup> Bartrak horixe iradokitzen du eta halaxe dio hitzez hitz: «Es pot dir, doncs, en tots aquests casos, que el clític reflexiu té algún efecte sobre la valència argumental del verb» (Bartra 2002: 2151). Horretatik datoz ematen zaizkien *pasibo* eta *inpersonal* deiturak. Beraz, implizituki bada ere, gure interpretazioaren arabera, Bartrak ES-i egotzen dio iragangaiztea, pasibo eta inpersonal argumentuak gutxitzen dituzten mekanismotzat hartzen direlako.

izen sintagma aditzaren atzean (eskumatar) agertzen bada. Hala, egile honek dioenez, aditz iragankor batekin batera, ez da (edo ez zen) komunztadurarik egiten. Ikus Solàren komunztadurarik gabeko adibideok (1987: 97).

- (5) a. *Enguany aquí s'ha construït molts pisos.*  
 aurten hemen ES.haver.3SG eraiki.PTCP asko.M.PL pisu.M.PL  
 'Aurten hemen pisu asko eraiki dira.'
- b. *Ara ja no es necessita tantes cadires.*  
 orain jada ez ES behar.3SG hainbeste.F.PL aulki.F.PL  
 'Orain jada ez dira hainbeste aulki behar.' Solà (1987: 97)

Adibide hauetan ikus daitekeenez, gaia pluralekoa izan arren, adizkiak singularreko hirugarren pertsona komunztadura erakusten du. Rigauk (1991: 242), gaia xehetasunez aztertu duen gramatikariak, bere aldetik dio singularreko hirugarren pertsona dela pertsona eta zenbaki eza katalanez. Hortaz, komunztadurarik gabeak lira-teke (5a,b) bai Bartra bai Rigauentzat. Guk gure aldetik, nahiago dugu pentsatu komunztadura hori dela besterik ezean (ing. *by default*) ezartzen den komunztadura eta mintzagai ditugun egituretan, hala nola (5a,b) adibideetan, subjektu ezabatuari dago-kiola komunztadura hori (2.3.2 atala). Nolanahi ere den, nolabaiteko asimetria dago (4b) eta (5) adibideen artean komunztadurari dagokionez: batean gaiarekin egiten da komunztadura (4b), besteetan (5), aldiz, ez —ikus baita Solà (1973, 1987) ere—. Guk lan honetan, (5)ekoak zein pasiboaren antza duen (4b) bezalako ES-egiturak egitura iragankorrek direla aldarrikatuko dugu, zehazki subjektu ezabatuko inpertsonal (Blevins 2003). Jarraian (2.3 atala) erakutsiko dugu hori.

### 2.3. Euskararen inpertsonalak eta katalanaren ES-egiturak subjektu ezabatuko inpertsonalen argitan

Ikus dezagun orain zein diren subjektu ezabatuko inpertsonaletan agertzen diren ezaugarri nagusiak (Blevins 2003) eta euskaraz zein katalanez araka ditzagun. Lehenik eta behin, egitura hauetan ager daitezkeen aditzak aztertuko ditugu (2.3.1 atala); bigarrenik, egitura hauetan subjektu ezabatu bat dagoela erakutsiko dugu (2.3.2 atala); hirugarrenik, subjektu hori gizakia dela frogatuko dugu (2.3.3 atala), eta laugarren eta azkenik, ingelesezko *by*-phrase bezalako zeharkako sintagmei dagokienez duten jokabidea zein den aztertuko dugu (2.3.4).<sup>5</sup>

#### 2.3.1. Aditz motak

Euskaraz zein katalanez, inpertsonaletan ager daitezkeen aditzak zein diren ikus-teko, euren argumentu egiturari begiratuko diogu hemen. Hasteko, euskararen in-pertsonalak aditz iragankorren gainean eraiki daitezke (Ortiz de Urbina 2003; Rodet 1992; Berro & Fernández 2019; Fernández eta Berro 2021: 2.3 eta 5.2 atalak). Aditz iragankorra oinarri duen inpertsonala erakutsi dugu (1b)/(4b) adibidean. Aldaera

<sup>5</sup> Kontuan har bedi, lan honen izaera eta neurriak tarteko, eztabaida neurri handi batean soildu beharko dugula eta irakurleak beharrezkoa izango duela aipatu berri ditugun lanetara jotzea xehetasun bila. Barkatuko ahal digu Hualdek?



arazlea besterik ez duen *legeztatu* aditza ekarri dugu (6a) adibidera; jabetzaren iragaita adierazten duen *saldu* ikus daiteke (6b) adibidean; *idatzi* eta *irakurri* bezalako komunikazio aditzak ageri dira (6c) adibidean, eta inkoatibo/arazle alternantzia duen *apurtu* aditza (6d) (Haspelmath 1993; euskararako, Oihartzabal 2003; Berro, Oihartzabal & Fernández 2018 aipamenekin batera).

- (6) a. *Emakume trafikoaren mafiak legeztatu dira, ez besterik.* (Berria, A. Iban, 2004-03-05)  
 b. [...] *bi kontzertuetarako sarrera guztiak saldu dira jada.* (Badok musika ataria, 2019-07-04)  
 c. *Liburu gehiago idatzi eta irakurtzen da gaur egun.* (Argia 1071, 2011, J. A. Loidi)  
 d. *Tradizioak asmatuak dira: apurtu daitezke.* (Berria, 2019-04-19, A. Aroma)

Interesgarriro, euskal inperpersonalak ez dira nahitaz aditz iragankorrez osatu behar. Aditz inergatibo eta inakusatiboan gainean ere eraiki daitezke, nahiz eta inakusatiboak nekezago aurkitzen diren (Rodet 1992; Ortiz de Urbina 2003; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021: 2.3 eta 5.2 atalak). Inergatiboak dira (7)ko adibideetako aditzak (*jokatu* eta *hitz egin*) —baita (2d) adibideko *lan egin* ere— eta inakusatiboak (8)koak (*joan* eta *jai*o).

- (7) a. *Egun, Nafarroan soilik jokatzen da, eta zehatzago erranda, Baztanen eta Malerrekan.* (Baztanturismo. Laxoa eta herri kirolak.)  
 b. *Sarri hitz egiten da nerabeez, baina gutxitan uzten zaie eurei bizketan.* (Argia, Beraien hizkuntza aldaketan ikertzaile, M. Aldalur, 2016-06-19).
- (8) a. *Bestalde, herrialde bakoitzeko oinarrizko hiztegia ere ikasten saiatu ginen: kaixo, eskerrik asko eta nondik joaten da hona esaten jakiteko.* (Goiena, Bi gurgipilen gainean ere ezagutu daitekeelako mundua. E. Azurmendi, 2021-07-29)  
 b. *Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da.* (S. de Beauvoir/I. Arrarats, *Bigarren sexua*, 2019)

Euskararen inperpersonaletan, inakusatiboek murriztapen handiagoak dituzte iragankor eta inergatiboek baino. Izan ere, interpretazio generiko eta ez-episodikoa izaten dute, eta hortaz, aspektu inperfektiboarekin azaldu ohi dira (8a) eta (8b) adibideetan bezala (Rodet 1992; Ortiz de Urbina 2003).<sup>6</sup>

Beste alde batetik, katalanez, askotariko aditzak ager daitezke subjektu zehaztugabeko ES-egituretan (Bartra 2002: 2151-2152). Aditz iragankorrak aurki daitezke bertan, hala nola, (2b)/(4b) adibideko *collir* ‘bildu’, baina baita inergatiboak (9) eta inakusatiboak ere (10) —(9a) gorago (2d) gisa eman dugu—.

- (9) a. *Aquest any s'ha treballat molt.*  
 hau.M.SG urte.M.SG ES.haver.3SG lan egin.PTCP asko  
 ‘Aurten lan handia egin da.’

<sup>6</sup> Inakusatiboek azterketa xehea behar eta merezi dute, gerorako utziko dugu lana.



- b. *No es pot córrer tant.*  
 ez ES ahal.PTCP korrikatu.INF horrenbeste  
 ‘Ezin daiteke horrenbeste korrikatu.’
- c. *Ara se’n parla molt de drets humans.*  
 orain ES.CL hitz egin.3SG asko P giza eskubide.M.PL  
 ‘Orain asko hitz egiten da giza eskubideez.’ (Bartra 2002: 2151)
- (10) a. *Els dies de pluja sempre s’arriba tard*  
 DET.M.PL egun.M.PL P euria.F.SG beti ES.heldu.3SG berandu  
*a la feina.*  
 P DET.F.SG lan.F.SG  
 ‘Egun euritsuetan, bat beti heltzen da berandu lanera.’ (Bartra 2002: 2151)
- b. *No es neix dona: s’esdevé.*  
 ez ES jaio.3SG emakume ES.bihurtu.3SG  
 ‘Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da’.

Laburbilduz, Blevinsek (2003) dio egitura pasiboak aditz iragankorren gainean<sup>7</sup> eraikitzen direla eta subjektu ezabatuko inpersonalak, aldiz, iragankorren gainean ez ezik, inergatibo eta inakusatiboen gainean ere eraiki daitezkeela. Hala bada, orduan euskararen inpersonalak zein katalanaren ES-egiturak ez dira pasiboak, subjektu ezabatuko inpersonalak baino.

### 2.3.2. Subjektu ezabatuez

Subjektu ezabatuko inpersonalak (deiturak berak erakusten duen bezala) subjektua *ezabatu* egiten dute. Blevinsek (2003: 485) dio egitura hauetan subjektua ez dela behar bezala, adierazi gabe uzten dela baino («not demoted but unexpressed»). Polonieraren *-no/to*-egiturak subjektua ezabatuko inpersonal hauetakoak dira (Blevins 2003) —ikus baita Siewierska (1988) eta Kibort (2003) ere—. Polonieraz, gainera, pasiboa (11a) eta subjektu ezabatuko inpersonala (11b) daude eta biak konpara daitezke —katalanez ere halaxe da: ES-egiturekin batera, ‘ser’ aditzeko pasiboa edo *pasibo perifrastikoa* deritzana dago (Bartra 2002: 2119-2149)—. Pasiboan, osagarria subjektu gunera goratu egiten da. Hala dela frogatu daiteke ikusiz gero gaiak jada ez duela egitura iragankor batean jasotzen duen akusatibo kasua, subjektuak jasotzen duen nominatibo kasua baino. Bestalde, aditz laguntzaileak pertsona eta numeroan egiten du komunztadura gaiarekin. Hortaz, (11a) bada iragangaiztutako egitura bat. Aldiz, subjektu ezabatuko inpersonalan ikus daitezkeenez, gaiak akusatibo kasua gordetzen du eta ez du komunztadura eragiten (Blevins 2003: 491). Osagarria, beraz, ez da subjektura goratu.

- (11) a. *Gazeta była czytana (przez dzieci)*  
 egunkari.F.SG.NOM izan.F.SG irakurri.F.SG P umeak  
 ‘Umeek egunkaria irakurri zuten (The paper was read by the children).’

<sup>7</sup> Hala ere, inergatibo baten gainean egitura pasibo bat eraiki daiteke alemanaren *es wurde getanzt* ‘dantzatu zen’ motakoa. Blevinsek halakoak pasibotzat hartzen ditu: subjektua desagertu egiten da eta bere ordez subjektu betegarri bat erabiltzen da (*es*). Inakusatiboen gainean, aldiz, ezin daiteke inongo pasiborik eraiki.

- b. *Gazetę* (\**byłal/\*było*) *czytano* (\**przez dzieci*)  
 egunkari.F.ACC izan.F.SG/N.SG irakurri.PAST.IMPERS P umeak  
 ‘Batek/Haiek egunkaria irakurri zuten.’ (Blevins 2003: 491)

Gatozen orain katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egituretara. Gorago (2.2 atala), gogoeta labur bat egin dugu egitura honetako balizko subjektuaz komunztaduraz gaia labur arakatuz. Katalanez, polonieraz ez bezala, aditz komunztaduraz baliatu ezin bagaitezke erabakitze gaia subjektua ote den —*les pomes* ‘sagarak’ (2b)/(4b) adibidean— (ikus 2.2 atala eta 4 oin-oharra), orduan polonieraz egin bezala, gaiaren kasu markapenari bederen begiratu geniezaioke. Zoritxarrez, hemen ere nahi baino irristakorrangoak dira datuak. Katalanez, izenek ageriko kasu morfologiarik erakusten ez dutenez, akusatibo kasuaren zantzuak ikusteko beharrezkoa da pertsona izenordainetara jotzea, horien kasuan, bai, nominatibo eta akusatibo kasuko izenordainak morfologikoki bereizten baitira. Ikus dezagun jarraian.

ES-inpertsonean ezin daiteke nominatiboz markaturiko izenordainik agertu subjektu gisa (Rigau 1991: 249; *GLC* 2016: 23.3.1 atala, 896), hots, gorago esan dugun bezala (2.2 atala), agerian behintzat ez dago subjekturik —bestela balitz, ez genuke subjektu ezabatuko inpertsonean hartuko—. Korapilatsua goak dira gai bizigabeak dituzten kasuak eta momentuz albo batera utziko ditugu (ikus 4.3 atala). Gaia biziduna edo gizakia denean, pertsona izenordain akusatibo batez adieraz daiteke.

- (12) a. *És un animal perillós: se l’ha de vigilar.*  
 ser.3SG DET animalia arriskutsu ES CL3M.SG.ACC.haver.3SG P zaindu.INF  
 ‘Animalia arriskutsua da: zaindu behar da.’ (*GLC* 2016: 896)
- b. *Se la veu molt compungida.*  
 ES CL3F.SG.ACC ikus.3SG oso atsekabetuta  
 ‘Oso atsekabetuta ikusten da.’ (*GLC* 2016: 896)
- c. *Se’ns coneix.*  
 ES.CL1PL.ACC ezagutu.3SG  
 ‘(Batek) ezagutzen gaitu.’ (Fabra 1956: 62, *apud* Jané 1998: 20)

(12a) eta (12b) adibideetan, gai biziduna eta gizakia adierazten dituzten pertsona izenordain akusatiboak ditugu, hurrenez hurren; (12c) adibidean, berriz, pluraleko lehen pertsonako izenordaina. Halako adibideek, hots, ES klitiko klitiko akusatiboekin konbinatzen dituzten agerraldiez eztabaida handia dago katalanaren gramatikarien artean —ikus Jané (1998) eta Bartra (2002: 2158-2160) beste batzuen artean—, baina Janék (1998) batez ere erakusten duen adibidetegia kontuan hartuta, ez dirudi printzipioz uka daitekeenik ES-inpertsonean gaia pertsona izenordaina denean, klitiko akusatibo gisa agertu ezin daitekeenik. *GLC*k berak (2016) adibideak ematea eta hala dela jasotzea ere esanguratsua da, gure ustez.<sup>8</sup>

<sup>8</sup> Izatez, Janék (1998) ez ditu bakarrik jasotzen bizidun eta gizakiak diren gaiak; baita bizigabeak direnak ere (Fabrarenak berarenak tartean). Alabaina, bizigabeak oso nekez onartzen dituzte hiztunek, hala nola, gure arteko egile valentziarrak. Guk ez dugu hemen ildo hori xehetasunez jorratuko. Hala egin nahi duenak, ikus bitza Jané (1998); Bartra (2002: 2158-2160) eta *GLC* (2016: 896). Eta gaztelaniarekiko konparaziorako, ikus artikulua honen 4.3 atala.

Laburbilduz, ES-inpertsonalak aditz iragankor batez osatzen direnean, ES klitiko klitiko akusatibo batekin batera ager daiteke. Hortaz, egitura hauetan, osagarria egon badago eta ez da subjektura goratu (bestela, pertsona izenordainak nominatiboa erakutsiko luke, eta esan dugun bezala, halakorik ez da onartzen katalanez). Hortaz, gaia osagarria da (ez subjektua), eta subjektua ezabatua dago.

Euskarari dagokionez, azkenik, ez dago morfologikoki egitura iragankor bat adieraziko lukeen zantzurik. Aditz laguntzailearen hautaketatik bertatik, alegia, *izan* hautatzen den unetik, badirudi egitura iragangaiztu baten aurrean gaudela, eta halaxe iritzi izan zaio literaturan (Ortiz de Urbina 1989, 2003: 581; Albizu 1997; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021 beste batzuen artean). Alabaina, euskara hizkuntza ergatiboa den aldetik, gaiak ez du erakusten akusatibotik nominatiborako aldaketa egiten ote duen ezta, ondorioz, osagarritik subjektura goratu ote den ere. Gaiak, izan osagarria izan iragangaizteko subjektua, kasu bakarrarekin markatzen da, absolutiboarekin alegia. Hortaz, goratu den ez den ezin jakin. Dena dela, euskal inpertsonala morfologikoki baino ez da iragangaizta. Ondoren erakutsiko dugunez, gaiaz gain, subjektu ezabatu bat dago. Beraz, egitura morfologikoki iragangaizta izan arren, sintaktikoki iragankorra da

### 2.3.3. Subjektu ezabatuaren gizaki izaeraz

Blevinsek (2003) subjektu ezabatu inpertsonalak pasiboetatik bereizteko darabilen hirugarren irizpidea da inpertsonaletako subjektu ezabatua gizakia izan behar dela halabeharrez, eta jakina denez, pasiboetako subjektu logikoak (hizkuntza batzuetan zeharkako sintagma batez berreskura daitekeena, adibidez, *by-phrase* batez ingelesez) ez du halako murriztapenik.<sup>9</sup> Euskararen inpertsonalen eremuan, Ortiz de Urbina (1989) eta Rodetek (1992) aspaldi azaldu zuten subjektu ezabatua gizakia izan behar zelako aierua. Berro eta bestek (2022) euren aldetik erakutsi dute hori gertatzen dela kideko egitura iragankorrean baita gizakiak ez diren subjektuak onartzen direnean ere. Hala, adibidez, inkoatibo/arazlea alternantzia duen *hondoratu* aditzare-

<sup>9</sup> Hala ere, Blevinsek (2003: 481) esaten duenez, zehaztugabeko gizaki egile bat izatea ez da inpertsonalen ezaugarri esklusiboa, eta pasibo mota berezietan ere aurki liteke (hala nola, tradiziozko gramatikari SE-pasibotzat hartu diren horietan, ikusi 4 atala). Hortaz, sistema ezegonkorra izango da: «a passive system with no personal constructions would be highly susceptible to reinterpretation as an impersonal system» (Blevins 2003: 475). Gaztelaniaren eta katalanaren kasuan, sistema inpertsonal horrek marka morfologiko bera izango luke, *SE/ES*. Bien arteko hurbiltasuna dela eta *NGLEk* gaitzesten dituen gurutzaketak sortzen dira (*NGLE* 2009: 4039):

- |      |                                  |              |                   |                 |
|------|----------------------------------|--------------|-------------------|-----------------|
| (i)  | <i>Se premiaron</i>              | <i>a los</i> | <i>mejores</i>    | <i>alumnos.</i> |
|      | SE saritu.3PL.PST                | A DET.M.PL   | hoberen. M.PL     | ikasle.M.PL     |
|      | 'Ikaslerik onenak saritu ziren.' |              |                   |                 |
| (ii) | <i>Se buscan</i>                 | <i>a los</i> | <i>culpables.</i> |                 |
|      | SE bilatu.3PL.PST                | A DET.M.PL   | errudun.M.PL      |                 |
|      | 'Errudunak bilatzen dira.'       |              |                   |                 |

Adibide hauetan, komunztadura eta *a* pertsonala, estandarrean bateragaitzak izaten direnak, elkarrekin agertzen dira, morfologikoki eta semantikoki horren hurbil dauden bi egituren artean espero daitekeen bezala. Gurutzaketa hauek, hala ere, berdin gerta litezke egitura bakarra badugu, iragankorra, osagarriaren araberrako komunztadura azpistemekin (ikus 4.3 atala).

kin, aldaera arazlean subjektua biziduna (eta gizakia) izan daiteke (13a'), baina baita bizigabea ere (13a):

- (13) a. *Ekaitzak / Norbaitek itsasontzia hondoratu du.* [arazlea]  
 b. *Itsasontziak hondoratu dira.* [inakoatibo/inpertsionala]

Alabaina, (13b) adibidea anbigua da eta bi irakurketa ditu: batetik inkoatiboa izan daiteke eta bestetik arazlearen inpertsionala ere bai. Dagoen-dagoenean zaila da beharbada hala dela ikustea, baina bi aukeren arteko anbiguetatea apurtzen da *nahita* bezalako *egileari zuzendutako modifikatzaileez* baliatuz gero: *berez* bezalako modifikatzaile bat erakusten badu (*Itsasontziak berez hondoratu dira*), orduan egitura inkoatiboa da; aldiz, *nahita* bezalako modifikatzaile batekin (*Itsasontziak nahita hondoratu dira*), inpertsionala (Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021). Bada, irakurketa inpertsionalean, ez dirudi interpreta daitekeenik itsasontziak hondoratu dituen ekaitza izan denik, hots, bizigabea den zerbait: gizaki bat izen behar dela dirudi. Hortaz, horri dagokionez esan genezake euskararen egitura inpertsionalak estuago lotzen zaizkiola Blevinsen subjektu ezabatuko inpertsionaleri, pasiboei baino, pasiboetan ez dago-eta halako baldintzarik.

Katalanez, beste alde batetik, inkoatibo/arazle alternantzia berean parte hartzen duen *enfonsar* 'hondoratu' aditzak ere aldaera arazlean gizakia den subjektua izan dezake (14a) edo bizigabea dena (14b):

- (14) a. *L'oficial del vaixell rus que va enfonsar*  
 DET.ofizial P.DET itsasontzi errusiar SUBR AUX.3SG hondoratu.INF  
 El Fairell [...] ha pagat la fiança per evitar la presó.  
*El Fairell* haver.3SG ordaindu.PTCP DET fidantza P saihestu.INF DET  
 kartzela  
 'El Fairell (arrantzontzia) hondoratu zuen itsasontzi errusiarraren ofizialak fidantza ordaindu du kartzela saihesteko.' (La Vanguardia, 2017-03-29)
- b. *La tempesta va enfonsar el vaixell.*  
 DET ekaitz AUX.3SG hondoratu.INF DET itsasontzi  
 'Ekaitzak itsasontzia hondoratu zuen.' (Bartra 2002: 2153)

Bestalde, *enfonsar* aditzak aldaera inkoatiboa ere badu *hondoratu* aditzak bezalaxe. Alabaina, euskaraz ez bezala, aldaera inkoatibo horrek ES klitikoa erakusten du (15).<sup>10</sup>

- (15) *El vaixell es va enfonsar.*  
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF  
 'Itsasontzia hondoratu zen.'

Jakina, (15) adibidea ere —euskarazko (13b) adibidea bezala— anbigua da, zeren ES klitikoa bi modutara interpreta daiteke: edo inkoatiboa adierazten duen kliti-

<sup>10</sup> Euskaraz *inakoatibo/arazle alternantziadun* aditzez hitz egiten da oro har, baina katalanez, Bartrak (2002), adibidez, *ergatibo* deritze halako aditzei. Deituretan berrito ere ez dago batasunik ez hizkuntza batetik besterako gramatika tradizioan ez gramatika teorikoaren eta hizkuntza tipologiaren eremuetan. Guk katalanari dagokionez, beharbada, *antikausatibo* deitura hobetsiko genuke aldaera inkoatiborako, ES *antikausatibo* markatuz har daitekeelako (Abrines & Mateu 2015), baina nahasmen are handiagoa ez sortzearren, inkoatiboa gordetzea erabaki dugu —hurbilketa tipologikorako, ikus Kulikov (2010)—.

kotzat hartzen da eta ondorioz, egitura inkoatiboa litzateke edo inpertsonaletan ageri ohi den klitikotzat har daiteke eta orduan inpertsonala litzateke.<sup>11</sup> Bi egituren arteko asimetria ikus daiteke modifikatzaileak gaineratuz gero. Konparatu bitez bestela (16a) eta (16b): lehena inkoatiboa da eta bigarrena inpertsonala.

- (16) a. *El vaixell es va enfonsar tot sol.*  
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF osorik bakarrik  
 ‘Itsasontzia berez hondoratu da.’ [inkoatiboa]
- b. *El vaixell es va enfonsar intencionadament.*  
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF nahita  
 ‘Itsasontzia nahita hondoratu da.’ [inpertsonala]

Kontua da (15) egituraren irakurketa inpertsonalean (16b), bakarrik interpreta daitekeela gizakia den norbaitek eragin duela itsasontzia hondoratzea, eta ez, adibidez, ekaitzak.<sup>12</sup>

Blevinsek (2003) dio, gainera, gizakiak ez diren bizidunak espero genitzakeen age-rraldietan ere, ez dirudiela gizakia ez den subjekturik interpreta daitekeenik, Siewierskak (1988: 263) polonierarako erakutsi bezala —berea da (17a) adibidea, Kibortek (2003: 50, 282) egokitu duena—. Euskararen inpertsonaletan ere halaxe dela dirudi (Fernández & Berro 2021) eta katalanez antzeko (testuingururik gabe interpretatzea nekezagoa den arren bai euskaraz bai katalanez).

- (17) Poloniera
- a. *Gniazda budowano wysoko.*  
 kabiak(NVIR<sup>13</sup>).ACC eraiki.IMPER goian  
 ‘Kabiak goian egiten dira.’
- Euskara
- b. *Kabiak zuhaitzetan gora egiten dira.*

<sup>11</sup> Ipar-mendebaldeko katalanean, egitura inkoatiboak eta inpertsonalak ezberdintasunak erakusten dituzte komunztadurarekiko (Solà 1987; Rigau 1991: 250). Hala erakusten dute irakurketa anbiguorik ez duten ondoko bi adibideek. 2.2 atalean dagoeneko adierazi dugun bezala, hizkera horretan, egitura inpertsonala bada, ez dago komunztadurarik izen sintagma aditzaren ondoren agertzen bada (i). Aldiz, egitura inkoatiboa bada, izen sintagmarekiko komunztadura dago (ii).

(i) *S’ha enfosat els vaixells perquè no caiguessin*  
 ES.haver.3SG hondoratu.PTCP DET.M.PL itsasontzi.M.PL SUBJ ez jausi.SUBJ.3PL  
*en mans dels enemics.*  
 P esku.PL P.DET.M.PL etsai.M.PL  
 ‘Itsasontziak hondoratu dira etsaien esku jausi ez daitezen.’

(ii) *Amb la tempesta s’han enfosat els vaixells.*  
 P DET.F.SG ekaintza.F.SG ES.haver.3PL hondoratu.PTCP DET.M.SG itsasontzi DET.M.PL  
 ‘Ekaitzarekin itsasontziak hondoratu dira.’

<sup>12</sup> Halako egituren aldean, hiztun batzuek egitura iragankorra nahiago dute (*Han enfosat* ‘haver.3PL hondoratu.PTCP’ *el vaixell intencionadament*). Euskaraz ere halaxe delakoan gaude, hots, egitura iragankorra nahiago izaten da (*Itsasontzia nabita hondoratu dute*) inpertsonalaren aldean (*Itsasontzia nabita hondoratu da*).

<sup>13</sup> *Non-viril* deiturari dagokio NVIR laburdura —*ez-biril* emanenez euskaraz—, poloniera bezalako eslaviar hizkuntzetan dagoen genero bati dagokio.

Katalana

- c. *Els nius es fan a dalt.*  
 DET.M.PL kabi.M.PL ES egin.3PL goian  
 ‘Kabiak goian egiten dira.’

Azkenik, aditzak animalia bati egozten zaion ekintza bat, hala nola, *zaunka egitea* adierazten duenean, inpertsonalaren subjektua ere gizakia da subjektu ezabatuko inpertsonalean (Blevins 2003). Estonieraz erakusten dugu hori (18a) adibidean —Torn (2002: 95) *apud* Blevins (2003: 484)— eta euskaraz eta katalanez, (18b) eta (18c) adibideetan, hurrenez hurren —ikus Kibort (2003: 282) polonieraren antzeko adibideetarako.

(18) Estoniera

- a. *Õues haugutakse.*  
 kanpoan zaunka egin.PRES.IMP  
 ‘Kanpoan zaunka egiten da.’

Euskara

- b. *Kanpoan zaunka egiten da.*

Katalana

- c. *Fora es lladra.*  
 kanpoan ES zaunka egin.3SG

Dena dela, bada zeresanik (18b) eta (18c) adibideei dagokienez. Euskaraz eta katalanez bederen, hauek bezalako adibideak ez dira interpretatzen errazak testuinguru egokirik gabe, *zaunka egin/lladrar* aditzek batetik eta egitura inpertsonalek bestetik ezartzen dituzten murriztapenen artean kontraesana dagoelako. Izan ere, zaunka egiteak, hizkuntza batean zein bestean, egilea txakur bat izatea eskatzen du. Aldiz, egitura inpertsonalak ezabatutako subjektua gizakia izatea eskatzen du. Horretatik dator, beraz, kontraesana.

Alabaina, (18b) eta (18c) adibideak arruntak lirateke, dagokien testuinguruan interpretatu ahal balitz *zaunka egin/lladrar* aditzek metaforikoki gizakiei erreferentzia egiten dietela, (19a) eta (19b)n erakusten dugun bezala.

(19) Euskara

- a. *Kongresuan ez da hitz egiten, zaunka egiten da.*

Katalana

- b. *En el congrés no es parla, es lladra.*  
 P DET.M.SG kongresu.M.SG ez ES hitz egin.3SG ES zaunka egin.3SG

Oso bestela, ez dirudi testuinguru egokia emanik ere —(20a) eta (20b) adibideetan bezala—, interpreta daitekeenik txakurrak direla zaunka egiten dutenak.

(20) Euskara

- a. ?? *Txakurtegi honetan zaunka egiten da.*

Katalana

- b. ?? *En aquesta canera es lladra molta.*  
 P hau.F.SG txakurtegi.F.SG ES zaunka egin.3SG asko

Euskaraz, esan dugun bezala, guk dakigula Ortiz de Urbina (1989) lanean agertzen da lehenik inpertsonaletako subjektua gizakia delako aierua, gerora Rodeten (1992)

lanean xehetasunez aztertzen dena eta berriki beste zenbait lanetan aldarrikatu dena (Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Katalanez, beste alde batetik, subjektu ezabatua gizakia (edo biziduna) delako aierua *GLCn* (2016: 894) aurki daiteke adibidez. Interesgarria da subjektu zehaztugabea gizakitzat hartu behar hori. Izan ere, katalanak badu zehaztugabea edo generikoa den subjektua adierazteko beste izenordain bat, alegia, *hom*, lexikoki bederen harremana duena frantsesezko *on*, alemanezko *man* (Fenger 2018) edo gaztelania zaharreko *omne* izenordainekin (Wheeler eta beste 1999; Bartra 2002: 2173-2174). Bartrak (2002) dio *hom*-en erabilera idatzizkoan eta hizkera zaharrale edo formalean aurki daitekeela bakarrik. Guk prentsa idatzian aurkitu berri dugu ondokoa:

- (21) *quan hom manifesta que les dones sempre*  
 CNJ HOM adierazi.3SG SUBR DET.F.PL emakume.F.PL beti  
*han manat,*  
 haver.3PL agindu.PTCP

*allò que té al cap és el govern de la llar.*  
 hura SUBR eduki.3SG P.DET buru ser.3SG DET aginte P DET etxe  
 ‘Batek diotenean emakumeek beti agindu dutela bere buruan duena da etxe  
 agintea.’

(VilaWeb, *I si les dones manessin, què?* M. Rojals, 2022-03-08)

Interesgarria dena da *hom* hori zehaztugabea bada ere, gizakia izan behar dela derrigorrez —itxuraz subjektu ezabatua den bezala—. Lan honetatik kanpo gelditzen da subjektu zehaztugabea adierazteko izenordain esplizituen azterketa, baina esango genuke gizakia izateko baldintza betetzen dutela subjektu zehaztugabe ezabatu zein *hom* bezalako ageriko guztiek —euskararako, ikus Ortiz de Urbina (2003: 572-576) eta katalanerako, ikus lehen emandako aipamenez gain, baita *GLC* (2016: 898-900) ere.

#### 2.3.4. Zeharkako sintagma gisako egileak ezinezko

Blevinsek (2003), azkenik, pasibo eta inpertsonalak bata bestetik bereizteko zeharkako sintagma gisako egilerik zilegi ote den aztertzen du. Jakina denez, hizkuntza askotan egitura pasiboko egilea zeharkako sintagma batez adierazten da, ingelesez adibidez, *by-phrase* batez —hurbilketa tipologiko baterako, ikus Siewierska (1984)—. Aldiz, subjektu ezabatuko inpertsonaletan ezinezkoa da.

Egungo euskarari argi dago inpertsonalek ezin dutela egilea zeharkako sintagma batez berreskuratu (Brettschneider 1979: 381; Ortiz de Urbina 2003: 611-612, 2006: 773; Urrestarazu 2019; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021):<sup>14</sup>

- (22) \**Sagarrak bildu dira baserritarrez.*

Katalanaz den bezainbatean, bestalde, ez dirudi ageriko subjekturik egon daitekeenik ES-egituretan (Bartra 2002: 2155). Nolanahi ere den, egile berak salbuespen

<sup>14</sup> Diakronikoki gauzak bestela zirela dirudien arren. Ikus Fernández eta Berro (2021: 3.1.1 atala eta aipamenak) eztabaidarako. Katalan zaharrerako, ikus 15 oin-oharra.



gisa ematen ditu hizkera administratibo eta juridikoan edo komunikabidetan oro har, *per edota per part de-z* lagundurik adierazten diren egileak —italierarako, ikus Jaeggli (1986) eta gatzelaniarako, Mendikoetxea (1999: 1682-1686) edo RAE-ASALE-ren *Nueva Gramática de la Lengua Española*n, *NGLE* aurrerantzean (2009: 785)—. *GLCk* (2016: 897) ere egiten du gaiaren aipamena eta (23) adibidea ematen digu.

- (23) *S'han emès vots particulars*  
 ES.haver.3PL bidali.PTCP boto.M.PL particular.M.PL  
*per part de diversos diputats del grup*  
 P parte P batzuk.M.PL diputatu.M.PL P.DET.M.SG talde.M.SG  
*mixt.*  
 misto.M.SG  
 ‘Boto partikularrak eman dira talde mistoko diputatuen aldetik.’

Dena dela, guri bereziki argigarria iruditzen zaigu *GLCk* (2016: 897) honi dagokionez dioena, hots, (23)ko adibideko *per part de* buru duen sintagma ez dela izatez egilea adierazten duen zeharkako sintagma bat, ez bada boto horiek nondik datozen adierazten duen sintagma bat, katalanez, *de, des de, de la banda de* eta abarrez ordezkara litekeena.<sup>15</sup> Euskaraz ere, kidekotzat har daitekeen *-(r)en aldetik* ageri da zenbaitetan hizkera administratibo eta juridikoan, estilo liburuetan halakorik ez erabiltzeko gomendioa egiten bada ere, hots, (24a) bezalakoak baztertu eta egilea ageri duten (24b) bezalako egitura iragankorrez ordezkatzeari gomendatzen bada ere (IVAP 2009: 132) —(24a) adibidea dakargu hona, nahiz eta ez duen egitura inpersonalik erakusten, *-tzea* forma jokatugabea baino—.

- (24) a. *Interesatuena aldetik oinarriak ez betetzeak, kobratu diren kopuruak osotara itzultzea sorraraziko du.* (IVAP 2009: 132)  
 b. *Oinarriak betetzen ez baditu, bekadunak diru guztia itzuli beharko du.*

Ez dugu agerraldi hauen azterketa xeharik egiteko asmorik. Guretzat argigarria da ikustea egitura inpersonal batean, zeharkako egile bat inola ere onartzen ez den euskaraz bezalako hizkuntza batean, badirela (22a) bezalako agerraldiak: zeharkako sintagma gisako egileak ez direlako seinale.

<sup>15</sup> Oso ohikoak izan ez arren, katalan zaharrean baziren zeharkako egile bat zuten ES-egiturak. Alabaina, zeharkako egile hau gehienetan zehaztugabea edo generikoa zen (i), eta oso kasu bakanetan zehaztua (ii) Bartra (agertzeaz) —ikus baita Solà (1987)—.

- (i) *les dites cases se deuen vendre per lo*  
 DET.F.PL esan.PTCP.F.PL etxe.F.PL ES behar saldu.INF P DET.M.SG  
*dit justícia*  
 esan.PTCP.M.SG epaile  
 ‘Aipatu etxeak erosi behar dira aipatu epailearen aldetik.’

- (ii) *Et qui us comptava los fets qui en Otrento*  
 eta REL zuek.DAT kontatu.IPFV.3SG DET.M.PL egin. PTCP.M.PL REL P Otrento  
*se faberen per lo dit Berenguer d' Entensa [...]*  
 ES egin.PST.3PL P DET.M.SG esan. PTCP.M.SG Berenguer P.Entensa  
 ‘Eta nork kontatzen ahal dizkizue Otrenton aipatu Berenguer d'Entensak egindakoak!’  
 (Ramon Muntaner, *Crònica*, 1325, *CICA*)

### 3. Subjektu ezabatua sintaktikoki indarrean dago

Gorago ikusi dugu bai euskarazko inpertsonalek bai katalanezko ES-egiturek subjektu ezabatuko inpertsonalen ezaugarriak dituztela. Atal honetan, subjektu ezabatuaren jokabide sintaktikoan jarriko dugu arreta. Ikusiko dugunez, subjektu ezabatua semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere indarrean dago, bai euskaraz bai katalanez. Horretarako, bi testuinguru sintaktiko izango ditugu hizpide: batetik bigarren mailako predikatuen zilegiztapena (3.1 atala) eta bestetik jabetza besterenezineko harremana ezartzeko gaitasuna (3.2 atala). Batean zein bestean, katalanaren ES-egitura ez ezik, pasibo perifrastikoa ere (Bartra 2002) aztertuko dugu.

#### 3.1. Bigarren mailako predikatuen zilegiztapena

Has gaitezen bigarren mailako predikatuen zilegiztapenarekin. Ezaugarri horren inguruan eztabaida handia egon da literaturan (Collins 2005; Landau 2010; Alexiadou, Anagnostopoulou & Schäfer 2015; Pitteroff & Schäfer 2019). Izan ere, subjektu ezabatuko egiturak nahiz egitura pasiboak dituzten hizkuntzetan kontraste interesgarriak aurkitzen dira: turkieraz, esate baterako, egitura inpertsonalek egileari zuzendutako adjektibo depiktiboak onartzen dituzte; egitura pasiboek, aldiz, ez (Legate, Akkuş, Šerekaitė & Ringe 2020: 781). Katalanez ere, ES-egituraren eta pasibo perifrastikoaren artean asimetria dago honi dagokionez. Izan ere, depiktiboak onargarriak dira ES-egituran (25), baina ez pasibo perifrastikoan (26). Hala, (25a) adibidean (*ben/més*) *despert* ‘esna-esna/esnago’ adjektibo sintagma egileari zuzentzen zaio; (25b) adibideko (*més*) *content* ‘pozago’ bezalaxe.

- (25) a. *Amb dos cafés, es condueix (ben/més) despert.*  
 COMMIT bi kafe.M.PL ES gidatu.3SG (ondo/gehiago) esnatuta.M.SG  
 ‘Bi kaferekin, esna-esna / esnago gidatzen da.’
- b. *Amb bones paraules, es fan les coses*  
 COMMIT on.F.PL hitz.F.PL ES egin.3PL det.F.PL gauza.F.PL  
 (*més*) *content.*  
 (gehiago) pozik.M.SG  
 ‘Hitz politekin, gauzak pozago egiten dira.’

Oso bestela, pasibo (25b)ren kideko pasibo perifrastikoan, ezin daiteke halako predikaturik izan.

- (26) \**Amb bones paraules les coses son fetes*  
 COMMIT on.F.PL hitz.F.PL DET.F.PL gauza.F.PL ser.3PL egin.PTCP.F.PL  
 (*més*) *content.*  
 (gehiago) pozik.M.SG

Bestalde, euskaraz ezin dugu egitura inpertsonala pasiboarekin konparatu, egungo euskaraz ez baitugu egitura pasiborik. Edozein kasutan ere, inpertsonaletan bigarren mailako predikatuak guztiz onargarriak direla ikus daiteke.

- (27) a. *Ibaia erraz zeharkatzen da oinutsik.*  
 b. *Herriko ereserkia zutunik kantatzen da.*  
 c. *Kanta hori mozkortuta kantatzen da.* (Fernández & Berro 2021)

Adibideotan, *oinutsik*, *zutunik* eta *mozkortuta* bigarren mailako predikatuak ezabatuko subjektuari egiten diote erreferentzia, alegia, ibaia zeharkatzen (27a), herriko ereserkia kantatzen (27b) edo kanta hori kantatzen (27c) duen egileari.

### 3.2. Jabetza besterenezineko harremana

Azter dezagun orain bigarren testuinguru sintaktikoa, alegia, jabetza besterenezineko harremana ezartzeko gaitasuna. Egitura inpersonaletan subjektua sintaktikoki indarrean badago, perpauseko beste osagaiekin harreman sintaktikoak ezartzeko gaitasuna izatea espero dugu. Horixe bera ikusi dugu 3.1 atalean, hots, subjektu ezabatuek adjektibo depiktiboak zilegiztatzen dituela. Atal honetan subjektuaren eta osagarri zuzenaren arteko uztardura harremana aztertuko dugu, bereziki jabetza besterenezineko harremana ezartzen duena (Berro eta beste 2024; ikusi gaztelaniarako MacDonald 2017 eta Ormazabal & Romero 2019).

Hainbat hizkuntzatan determinatzaile zehaztuek anaforen antzera joka dezakete eta sintaktikoki gorago dagoen osagai batekin jabetza besterenezineko harremana osatu (Guéron 2006; Le Bruyn 2014, eta lan horietan aipatutako lanak). Aitzindari sintaktikoa jabe gisa interpretatzen da eta determinatzaile zehaztua buru duen sintagma jabetza gisa. (28) adibidean, *Jon* da jabea eta *eskua* jabetza besterenezina.

(28) *Jonek eskua altxatu du.*

Orobat, baldintza sintaktiko batzuk bete behar dira harreman hori ezarri ahal izateko (Guéron 2006): i. jabeak ezin du perpausetik desagertu; ii. jabeak eta jabetzak gutxieneko eremu sintaktiko berean egon behar dute, hots, perpaus berean; eta iii. jabeak jabetza o-komandatu behar du. Guastik (2006) erakutsi duenez, pasiboetan ezin da jabetza besterenezineko harremanik ezarri. Izan ere, pasiboetan determinatzaile zehaztua daraman sintagma subjektu gunean dago eta ez dago bera uztartuko duen aitzindari sintaktikorik, ez behintzat o-komandatzan duen gune sintaktiko batean. Italiarazko adibidea ematen du Guastik (2006).

(29) \**La mano<sub>i</sub> è stata alzata da Gianni<sub>i</sub>*  
 DET esku izan.3SG be.PTC altxatua P Gianni  
 ‘Gianik eskua altxatu du.’

Ikus dezagun zer gertatzen den euskarazko inpersonaletan. Bada, gaztelaniaz bezala, euskarazko inpersonalen subjektu ezabatua jabe gisa interpreta daiteke (Berro & beste 2024) —baina ikus, gaztelaniarako, MacDonald (2017), Ormazabal & Romero (2019)—. Hori gertatzen da bai jabetza besterenezina, bai jabetza besterengarria adierazten duten sintagmekin ere. Esate baterako, (30b)n *berokia* etxean sartzan den pertsona bakoitzarena dela ulertzen da.

(30) a. *Hitza eskatzeko, eskua altxatuko da.*  
 b. *Etxean sartzeraoan, berokia sarreran utziko da.*

Katalanez antzeko datuak dauzkagu. Subjektu ezabatua eskuaren eta berokiaren jabeak direla interpretatzen da hurrenez hurren.

- (31) a. *Per a parlar, s' ha d'aixecar abans la mà.*  
 P P hitz egin.INF ES altxatu.GERO lehenago DET.F.SG esku.F.SG  
 'Hitz egiteko, eskua altxatuko da.'
- b. *En entrar, s' ha de deixar l' abric en l' entrada.*  
 P sartu.INF ES utzi.GERO DET.M.SG beroki M.SG P DET.F.SG  
 sarrera F.SG  
 'Sartzerakoan, berokia sarreran utziko da.'

Ez da hori gertatzen, ordea, pasibo perifrastikoetan. Italiaraz bezala, katalanezko pasiboetan ezin da jabetza harremanik ezarri beheratutako egilearen (izan agerikoa izan ezabatukoa) eta subjektu gramatikalaren artean.

- (32) \**La mà<sub>i</sub> ha estat aixecada per en Joan<sub>i</sub>.*  
 DET.F.SG esku.F.SG haver.3SG egon.PTCP altxatu.PTCP.F.SG P  
 DET.M.SG Joan  
 'Joanek eskua altxatu du.'

Gurutzatze ahula (ing. *weak crossover*) erakusten duten datu hauek, beraz, iradokiztzen dute inpertsonaletan badugula subjektu aitzindari bat, pasiboetan ez bezala.

### 3.3. Tarteko ondorioak

Atal honetako 1. taulan laburbildu ditugu euskararen inpertsonalen eta katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egituren ezaugarriak.

#### 1. taula

*Euskararen inpertsonalen eta katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egiturak konparatzen*

Ezaugarriak	Katalanaren ES-egiturak	Euskararen inpertsonalak
Adizkiaren iragangaiztea (morfoloikoa)	X	✓
Aditzak: iragankor, inergatibo eta inakusatiboak	✓	✓
Subjektu ezabatua	✓	✓
Subjektu ezabatu zehaztugabea eta gizakia	✓	✓
Zeharkako sintagma baten bidezko egilea	X	X
Bigarren mailako predikatuen zilegiztapena (depiktiboak)	✓	✓
Jabetza besterenezineko harremana	✓	✓

### 4. Sartu-irtena gaztelaniaren SE-egituren eremura: SE-pasiboa eta SE-inpertsonala

Gorago eztabaidatu ditugun ezaugarriek, 1. taulan bildu ditugunek, euskararen inpertsonalen eta katalanaren ES-egituren artean dagoen antzekotasun handia erakusten dute. Blevinsi (2003) jarraituz, egitura hauek biak pasiboetatik bereizten direla ikusi dugu, eta subjektu ezabatuko inpertsonaltzat jo ditugu, hots, ezabatua bada

ere, sintaktikoki indarrean dagoen subjektu bat duten egiturak. Egitura pasiboetan, aldiz, egileari dagokion argumentua ez da sintaktikoki adierazten, zeharkako sin-tagma batez ez bada behintzat (nahiz eta semantikoki «hor nonbait» egon, inkoati-boetan adibidez gertatzen ez dena). Ondorioz, subjektu gunea betetzearren (*Islapen Hatsarre Zabaldua* delakoaz gramatika sortzailean edo beste eredu teoriko batzue-tako antzeko hatsarreak direla medio), osagarri logikoa, hots, gaia bertara goratzen da. Hori litzateke egitura inperstonalen eta pasiboen arteko desberdintasun nagusia. Gaztelaniazko SE-egiturak, ordea, ez dirudi beti inperstonalekin batera sailka daitez-keenik, ez behintzat morfologiari erreparatzen badiogu. Izan ere, tradiziozko grama-tiketan bereizketa egin izan da pasibo erreflexuen eta inperstonal erreflexuen artean —ikus *NGLE* (2009) esate baterako—. Hemendik aurrera, bien arteko bereizketan sakonduko dugu, eta behin-behinean besterik ez bada SE-inperstonalak eta SE-pa-siboak deiturak erabiliko ditugu —inplikazio teorikorik gabe—. Ikusiko dugunez, SE-pasiboetan, gai argumentuak subjektu baten jokabide morfologikoa erakusten du aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako eta ezin delako klitiko batez bi-koiztu, gaztelaniaz subjektuekin gertatzen den bezala.

Bestalde, gorago (2.3.1 atala) erakutsi dugunez, egitura inperstonaletan deneta-riko aditzak ager daitezke, hots, iragankor, inergatibo zein inakusatiboak; oso bestela, egitura pasiboak printzipioz murrizagoak dira, aditz iragankorrik baino ez baitute onartzen. Bada, horixe bera ikusten da gaztelaniaren bi SE-egituretan: SE-inper-sonalak denetariko aditzekin sor daitezke; aldiz, SE-pasiboak aditz iragankorrekin baino ez.

Atal honetan, SE-inperstonala aztertuko dugu lehenik (4.1 atala), hots, aditz ira-gangaitzekin eskura daitekeen egitura bakarra. Ondoren (4.2 atala), aditz iraganko-rrekin batera, SE-pasiboaren berri emango dugu, eta bi SE-egituren artean dagoen banaketa azalduko dugu. Azkenik (4.3 atala), tradiziozko gramatikak pasiboen eta in-perstonalen artean dagoen aldea aztertuko dugu Blevinsen tipologiaren argitan.

#### 4.1. Aditz iragangaitzeko SE-egitura: SE-inperstonala

Dagoeneko esan dugun bezala, aditz inakusatibo (33a) eta inergatiboekin (33b) ezin dugu egitura pasiborik sortu. Hortaz, ondokoak SE-inperstonalak dira:

- (33) a. *No se nace mujer: se llega a serlo.*  
 ez SE jaio.3SG emakume SE heldu.3SG P izan.INF.CL.SG.ACC  
 ‘Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da.’
- b. *Ahora se habla mucho de derechos humanos.*  
 orain SE hitz egin.3SG asko P giza\_eskubide.M.PL  
 ‘Orain asko hitz egiten da giza eskubideez.’

Tradiziozko gramatikaren ikuspuntutik, aditz iragangaitzek ez dute subjektu bihur daitekeen osagarriarik. Beraz, (33)koak ezin daitezke pasiboak izan, subjektu ezabatua duten SE-inperstonalak baino. Aditz inergatibo eta inakusatiboekin egitura pasiborik osatu ezin dela azaltzeko, Blevins (2003) Comrieren (1977) hipotesian oi-narritzen da pasiboaren muina identifikatzean. Hala, berebiziko garrantzia duena ez da osagarria subjektura goratzea, subjektua adierazi gabe uztea baino. Ikuspegi honen argitara, aditz inakusatiboen argumentu bakarra (sakoneko) osagarri bat denez eta ez

subjektua, orduan ez dago pasiboak adierazi gabe utz dezakeen argumenturik. Ondorioz, (33a) ezin daiteke pasiboa izan. Bestalde, (33b) bezalako inergatiboen kasuan, badago subjektua, baina orduan bere gunea har dezakeen gai argumenturik ez dagoenez eta gaztelaniaz (alemanez ez bezala) betegarri hutsik ez dagoenez, ezin daiteke pasiborik osatu.

## 4.2. Aditz iragankorreko SE-egiturak: SE-inpertsonala vs. SE-pasiboa

### 4.2.1. Gai bizidunak

Predikatu iragankorretan badago subjektu logiko bat, eta ez da, beraz, harriztekoa gaztelaniaren tradiziozko gramatikan bi SE-egitura daudela aldarrikatzea, hots, inpertsonala eta pasiboa, ondoko bi adibideetan ikus daitezkeenak, hurrenez hurren:

- (34) a. *Se reconoce a un buen escritor por su puntuación.*  
 SE ezagutu.3SG A DET.M.SG ON.M.SG idazle.M.SG P bere puntuazio.F.SG  
 ‘Idazle on bat bere puntuazioagatik ezagutzen da.’
- b. *Se han recogido las manzanas.*  
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Sagarrik bildu dira.’

(34a)ko adibidea SE-inpertsonala dugu. Argi dago hemen gaia osagarria dela, *un buen escritor* ‘idazle on bat’ sintagmak aurretik daukan *a* preposizioak adierazten duen bezala. Beste alde batetik, aditza singularreko hirugarren pertsonan jokaturik dago, ezabatuta dagoen subjektuari zor zaiona (edo besterik ezean ezartzen den pertsona komunztadura izateari). Baina (34b) ezberdina da, gai argumentuak aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako: SE-pasiboa izango litzateke egitura hau. Horri dagokionez, gaztelaniak (34b) katalanaren (2b) adibidearen antza du —ikus 2.2 atala eztabaidarako—. Euskaraz, beste alde batetik, antzeko perpausetan (1b,d), ezin gaitzke komunztaduraz baliatu jakiteko gaia funtzioz aldatu ote den (osagarritik subjektura), subjektua izan zein osagarria izan, komunztadura izango dugu-eta.

Komunztaduraz gain, subjektuaren eta osagarriaren arteko ezberdintasuna erakusten duten bestelako datuak eman baino lehen, bi egituren banaketari erreparatuko diogu, bi aukera egoteak ez baitu esan nahi edozein aditz iragankorren argumentuak (34)ko bi egituretan ager daitezkeenik. Hasteko, oro har, badago osagarriaren markapen bereizgarriaren (OMBaren) antzekoa den gai bizidunen eta bizigabeen arteko asimetria. Izan ere, gai bizidun eta zehaztuak, hots, egitura iragankor batean *a* hartuko luketenak, ezin daitezke SE-pasiboetan ageri (NGLE 2009: 787). Ez da, beraz, kasualitatea (34a)ko (*a*) *un buen escritor* SE-inpertsonaleko osagarria izatea. Gai bizidun eta zehaztuak dituzten SE-inpertsonalak dira baita (35)ekoak. Gai osagarri biziduna baina aldi berean zehaztugabea izanez gero, orduan ez du *a* hartuko eta SE-pasibo komunztaduradunean agertuko da, (36)ko adibideetan bezala.

- (35) a. *Buscaban a los buenos vendedores.*  
 bilatu.3PL.PST A DET.M.PL ON.M.PL saltzaile.M.PL  
 ‘Saltzaile onen bila zebiltzan.’

- b. *Se buscaba a los buenos vendedores.*  
 SE bilatu.3SG.PST A DET.M.PL ON.M.PL saltzaile.M.PL
- c. \**Se buscaban los buenos vendedores*
- (36) a. *Buscaban buenos vendedores.*  
 bilatu.3PL.PST ON.M.PL saltzaile.M.PL  
 ‘Saltzaile onen bila zebiltzan.’
- b. ??*Se buscaba buenos vendedores.*  
 SE bilatu.3SG.PST ON.M.PL saltzaile.M.PL
- c. *Se buscaban buenos vendedores.*

Itzuliko gara (36c) bezalakoetara (4.2.2 atala). Bizidun/bizigabe asimetriarekin jarraitzeko, litekeena da euskararekin lotura egitea, zeharkakoa bada ere. Oro har, gaztelaniaz osagarri bizidunak datiboaren marka ere baden *a* preposizioarekin markatzea OMBaren adierazgarri da. Fenomeno beraren antzeko erakusgarriak daude euskararen hizkera batzuetan: bizidun eta zehatzak diren osagarriak datiboz markatzen dira eta ez absolutibo kanonikoarekin (Fernández & Rezac 2016; Odria 2017). Inpertsoneletan ere badaude estandarrik ez diren OMBaren antzeko fenomenoak. Fernández eta Berrok (2021) erakusten dutenez, egungo euskaraz 1. eta 2. pertsonako gai osagarriak nekez agertzen dira inpertsoneletan absolutiboz markaturik (37a), eta beren ordez, datiboz markatzen dituzte hitzun batzuek (37b):

- (37) a. ??*Hemendik ez zara ikusten.*  
 b. ??*Hemendik ez zaizu ikusten.*

Datiboz markaturiko gai hauek interesgarriak dira, datibo argumentuak printzipioz ez baitira subjektuak. Hortaz, (37b) ez da pasiboa, subjektu ezabatuko inpertsoneala baino, gaztelaniazko (35b) bezalaxe —ikus Berro eta beste (2022) eztabaidarako eta analisi formal baterako—. Ikusten denez, bai euskaraz bai gaztelaniaz nolabaiteko lotura dago gai bizidunen eta egitura inpertsonealen artean, pasibo egiturako subjektu bihurtu beharrean, osagarri gisa mantentzera bultzatzen dituen. Gai bizigabeak aztertuko ditugu jarraian.

#### 4.2.2. Gai bizigabeak

Oro har, gai bizigabea daukaten perpausetan batera topa ditzakegu (34b) eta (36c) bezalako itxurazko SE-pasiboak, hau da, gai argumentuak itxuraz aditz laguntzailearekin komunztadura egiten dueneko agerraldiak. Alabaina, aditz iragankorrekin printzipioz bi SE-egiturak eskura egon beharko liratekeen arren, izatez bai katalanez bai gaztelaniaz dialekto edo hizkuntza mailaren arabera banatzen dira. Goian (2.2 atalean) dagoeneko erakutsi dugun bezala, erdialdeko katalanean, Balear irletakoan eta valentzieraz, komunztadura egiten da gaiarekin (38a), ez, aldiz, ipar-mendebaleko hizkeretan (38b) —Solà (1987); Rigau (1991: 250)—. Hortaz, itxuraz bederen, ES-pasiboak (38a)/(2b) hobesten dituzte erdialdeko katalanean-eta, eta ipar-mendebaldean ES-inpertsonealak (38b)/(5a).

- (38) a. *S'han collit les pomes.*  
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 ‘Sagarrik bildu dira.’



- b. *Enguany aquí s'ha construït molts pisos.*  
 aurten hemen ES.haver.3SG eraiki.PTCP asko.M.PL pisu.M.PL  
 'Aurten hemen pisu asko eraiki dira.'

Gaztelaniaren kasuan *NGLEk* (2009) azpimarratzen duenez, egia bada ere SE-in-pertsonalak sarriago aurkitzen direla Hego Amerikan penintsulako gaztelanian baino, biak omen dira onargarriak:<sup>16</sup>

- (39) *Se firmará(n) los acuerdos en los*  
 SE sinatu.3SG(3PL).FUT DET.M.PL akordio.M.PL P DET.M.PL  
*próximos días.*  
 hurrengo.M.PL egun.M.PL  
 'Akordioak hurrengo egunetan sinatuko dira.'

Pluraleko 3 pertsona komuntadura *los acuerdos* gaiari dagokio. Aldiz, singularrereko 3 pertsona komuntadura subjektu ezabatuari dagokio. Komuntaduraren arabera sailkatu dugun SE-pasibo hau tipologikoki ondo kokatzearen, Blevinsen ezauzgarrien arabera aztertuko dugu orain SE-inpertsonalekin bestelako ezberdintasunik sortzen ote den ikusteko.

#### 4.3. Gaztelaniaren SE-egiturak subjektu ezabatuaren argitan

Komuntaduraren bitartez gaztelaniaz identifikatu diren bi SE-egiturak neurri batean behintzat egokitzen zaizkio Blevinsek (2003) zehazten duen pasibo/inpertsonal bereizketari. Gorago esan dugun bezala (2.3.1), SE-pasiboek ez dute edozein aditz mota onartzen; SE-inpertsonalek, aldiz, bai. Eta halaxe da: SE-inpertsonalak aditz iragankor, inergatibo eta inakusatiboekin batera osa daitezke eta SE-pasiboak, ordea, iragankorrekin baino ez.

Bestalde, gorago (2.3.1 atala) erakutsi dugunez, bi egituren arteko ezberdintasun erabakigarria gaiaren funtzio gramatikalean sortzen da Blevinsen tipologian, gaia subjektua baita pasiboetan eta osagarria inpertsonaletan. Euskararen markapen ergatiboa dela eta, funtzio horiei dagokien forma morfologikoan nekez antzeman daiteke ezer. Alabaina, gaztelaniaz eta katalanez izenordainei begira dakieke gaia subjektua edo osagarria ote den jakiteko: gaiak akusatiboa erakutsi behar du subjektu ezabatuko in-pertsonalean baina ez pasiboan. Gaztelaniaz, espero bezala, osagarriei dagozkien ize-nordainak (akusatiboak edo bestelakoak) SE-inpertsonaletan bakarrik dira onargarriak (40a), ez SE-pasiboetan (40b):

- (40) a. *A un buen escritor se le reconoce por*  
 A DET.M.SG on.M.SG idazle.M.SG SE CL.DAT.SG ezagutu.3SG P  
*la puntuación.*  
 DET puntuazio.F.SG  
 'Idazle on bat bere puntuazioagatik ezagutzen da.'

<sup>16</sup> Askotan, ematen diren adibideak hizkera jasokoak izaten dira edo formulaikoak (*Se vende plantas*). Egile bizkaitarren gaztelanian, behintzat, gehien jota bazterrekoztat hartu beharko lirateke singularrereko komuntaduradunak.

- b. —¿*Se han recogido las manzanas?*  
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL  
 —*No, no se (\*las) han recogido.*  
 ez ez SE CL.ACC.F.PL haber.3PL bildu.PTCP  
 ‘—Sagarrak bildu dira? —Ez, ez dira bildu.’

Lehenengo adibidean (40a) osagarriaren topikalizazioa dela eta, ezinbestekoa da izenordaina zehaztea eta osagarri bati dagokion klitikoa da ageri da perpausean, hots, *le* klitiko, leismo estandarrean maskulinoa eta biziduna den osagarri bati dagokion bezala. Oso bestela, (40b) adibidean, ezin daiteke osagarriaren klitiko akusatibo zehaztu. Subjektu komunztadura eta osagarriaren izenordaina, beraz, bateraezinak dira.

Kontuan izan orain arte gaztelaniazko SE-pasiboak komunztaduraren bidez identifikatzeko asmoa genuela-eta, pluraleko izenak erabili ditugula. Arrazoa sinplea da: gaia singularra bada, (41)n bezala, nekez jakin dezakegu zein SE-egitura den (pasiboa edo inpertsonala):

- (41) *Se ha recogido la fruta.*  
 SE haber.3SG bildu.PTCP DET.F.SG fruta.F.SG  
 ‘Fruta bildu da.’

Printzipioz SE-pasiboa izan liteke hau, hau da, adizkiak *la fruta* subjektuarekin komunztadura egiten dueneko. Alabaina, SE-inpertsonala ere izan liteke, eta hala balitz, aditz jokatuaren hirugarren pertsona komunztadura subjektu ezabatuarena izango litzateke, lehenago katalanerako aldarrikatu dugun bezala (2.3 atala). Jo dezagun, beraz, osagarrien klitiko bikoizketara eta ikus dezagun zer erakusten digun (41)ko egiturari dagokionez. Gogoratu gaztelaniaz ezkerretara topikalizaturiko osagarriak ezin direla agertu klitiko batez bikoiztu gabe —(40a) eta (42b)—. Beraz (41)ko gai argumentua aurreratzen badugu inongo klitikorik gabe, (42c)an egiten dugun bezala, erraz kontura gaitezke ez duela egitura iragankor bateko osagarri batek bezala jokatzeko, ez baitu klitikorik onartzen.

- (42) a. *Los campesinos han recogido la fruta.*  
 DET.M.PL baserritar.M.PL haber.3PL bildu.PTCP DET.F.SG fruta.F.SG  
 ‘Baserritarrek fruta bildu dute.’  
 b. *Esa fruta (\*la) han recogido los*  
 hori.F.SG fruta.F.SG CL.ACC.F.SG haber.3PL bildu.PTCP DET.M.PL  
*campesinos.*  
 baserritar.M.PL  
 c. *La fruta todavía no se (\*la) ha*  
 DET.F.SG fruta.F.SG oraindik ez SE CL.ACC.F.SG haber.3SG  
*recogido.*  
 bildu.PTCP

Hortaz, (42c) ikusirik, (41)ko egitura SE-pasiboa izan behar dela dirudi.

Bestalde, orain arte behin baino gehiagotan aipatu ditugun arrazoi morfologi-koak tarteko, ez dirudi euskaraz kasua eta komunztadura irizpide erabakigarriak direnik inpertsonaltzat jo ditugun egiturak inpertsonal edo bestelakoak ote diren era-

bakitzeko: beste irizpide batzuetara jo beharra dugu (eta izatez, halaxe egin dugu) inpertsonalak direla aldarrikatzeko (ikus baita Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Alabaina, katalana morfologikoki bestelakoa da eta ezaugarri morfologiko interesgarriak ditu honi dagokionez. Lehenik eta behin, katalanez osagarri bizidun eta bizigabeak modu berean tratatu arren, hots, gaztelaniaren OMBaren ondoriorik gabe, ES-egituretan, gaztelaniaz bizidun eta bizigabeen artean antzeman dugun asimetria bera (42) dugula dirudi, banaketa berarekin gainera. Izan ere, dagoeneko eztabaidatu dugun bezala (2.3.2 atala), eta Bartrak (2002: 2158) beste egile batzuen artean erakusten duenez, osagarriari dagozkion izenordainak onargarriak dira gai argumentua biziduna denean. Nolanahi ere, nahiko erabilera modernoa da eta halako kasuak zalantzarriak dira gramatikari batzuentzat. Izan ere, Corominasen hitzetan (Bartra 2002: 2158) *regust acastellanat* ematen diote katalanaren sintaxiari—. Beraz, badirudi honelakoetan egitura inpertsonala dugula (43a).<sup>17</sup> Oso bestela, gai bizigabeak ezinezkoak dira (43b).<sup>18</sup>

- (43) a. *No se'ns ha assegurat que se'ns*  
 ez ES.CL.IPL.DAT haver.3SG ziurtatu.PTCP SUBR ES.CL.IPL.ACC  
*pugui rebre avui.*  
 ahal.SUBJ.3SG jaso.INF gaur  
 'Ez zaigu ziurtatu gaur harrera egingo ote zaigun.'
- b. \**La muntanya, no se la veu des d'aquí.*  
 DET.F.SG mendi.F.SG ez SE CL.ACC.F.SG ikusi.3SG hemendik

Orobat, komuntzadura eta izenordainak bateraezinak dira:

- (44) \**Aquestes coses se les comenten sovint a casa.*  
 hauek.F.PL gauza.F.PL SE CL.F.PL.ACC komentatu.3PL sarri P etxe.F.SG

Asimetria honen argitan, 2.3.2 atalean aipatutako datu bat inguru zabalago batean kokatzeko aukera ematen digu. Rigauk (1991) erakutsi duen bezala, ES-inper-tonaletan ezin daiteke nominatiboz markaturiko izenordainik agertu subjektu gisa, eta hori gai argumentua osagarria delako seinaleztat hartu dugu. Hau argi dago gai bizidunen kasuetan. Bestalde, gai bizigabeen kasuan ere, alegia, gaztelaniaz behintzat SE-pasibotzat hartu diren egituretan, ezinezkoa da nominatiboz markaturiko izenordainik agertzea:

- (45) \**Se han recogido ellas* [= 'las manzanas'].  
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL  
 '[Sagarrak] Bildu dira.'

Honek ez du erakusten, hala ere, gai argumentu bizigabe hau subjektua ez denik: izenordainak *personalak* dira, bizidunekin bakarrik erabil daitezkeenak eta ezin dira, beraz, (45) bezalakoetan agertu aitzindaria bizigabea bada, subjektua balitz ere. Aldiz,

<sup>17</sup> Bestalde, Bartrak (2002: 2160) esaten duenez, hitzunt askorentzat onargarriagoak dira 1. eta 2. pertsonako osagarriei dagozkien izenordainak dituzten perpausak 3. pertsonako osagarriak dituztenak baino. Zenbat eta gorago egon Biziduntasunaren hierarkian, orduan eta errazagoa da egitura inper-tonalak erdiestea.

<sup>18</sup> Ikus baita 7. oin-oharra ere.

gaia biziduna denean, (40a) bezala, nominatiboaren ezintasuna adierazgarria da: gaia oraindik ere osagarria da eta subjektu ezabatuko inperersonala dugu.

Gaztelaniaren gramatikan *NGLEk* (2009) bizigabe/bizidun asimetria hau banaketa osagarrian egoteraino heltzen ez dela azpimarratu arren, argi dago OMB motako banaketa susmagarria dela, eta ez da harritzekoa, beraz, litezkeen bi SE-egituren analisi bateratu bat proposatzen duten saiakerak egotea. Bateratzekotan, argi dago zein aldetara makurtzen diren analisiak: aitortu behar bada ere eztabaidagarriak diren ezaugarriak (hots, komunztadura eta kasua) Blevinsen (2003) pasibo eta inperersonal bereizketan goren dauden ezaugarriak direla, beste ebidentzia guztiek inperersonalen aldera garamatzate. Ez dirudi katalanaren gramatikan pasiboan eta inperersonalen arteko bereizketa hobesten denik ES-egiturei dagokienez, Rigauren (1991) lanaz geroztik gutxienez. Gaztelaniaren kasuan, Ormazabal eta Romerok (2019) erakutsi dutenez, egitura iragankorrak dira hauek guztiak, gai osagarria daukatenak, eta horri dagokionez, pasibo perifrastikoetatik bereizten dira, besteak beste, bigarren mailako adjektiboan zilegiztapenean eta jabetza besterenezineko harremana ezartzean. SE-egiturak (baita neurri batean katalanaren ES-egiturak ere) bateratzeko, hizkuntza erromantzeetan oro har subjektuaren ezaugarri prototipikoa den komunztadura osagarri zuzenarekin lotu behar da. Horixe da Rigauk (1991) eta Ormazabal eta Romerok (2019), besteak beste, egiten dutena, Rigau subjektugunean dagoen ezabatuko argumentu zehaztugabe eta defektibo baten presentzian oinarrituz eta Ormazabal eta Romerok, Ocaren (1914) ildoan, SE bera izenordain subjektu nominatibotzat hartuaz. Bi analisi hauek ez dute klitiko osagarriaren ezintasuna azaltzen baina, behintzat, desiragarria dirudien bateratzeko bide bat ematen digute gai argumentu guztiak, bizidun zein bizigabeak, inperersonal baten osagarri gisa tratatzeko.

## 5. Ondorioak

Lan honetan, euskararen egitura inperersonalak eta katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egiturak konparatu ditugu eta ondorioztatu dugu biak bat datozela Blevinsen (2003) subjektu ezabatuko inperersonalekin. Subjektu ezabatuko inperersonalak pasiboak ez bezalakoak dira, ikusi dugunez, lehenak egitura iragankorrak direlako eta bigarrenak iragangaitzak. Pasiboetan egile argumentua beheratu da, eta gai argumentua subjektura goratu. Subjektu ezabatuko inperersonaletan, aldiz, egile argumentua da subjektua, eta gai argumentua osagarria. Subjektu ezabatua sintaktikoki indarrean dagoela erakusten duten froga batzuk ekarri ditugu lan honetara, zehazki, erakutsi dugu subjektu ezabatuak bigarren mailako adjektiboak zilegiztatu ditzakeela eta osagarriarekin jabetza besterenezineko harremana ezar dezakeela euskaraz zein katalanez.

Alabaina, gai honek ertz asko dituela erakutsi dugu. Katalanaren ES-egituren parean, gaztelaniaren SE-egiturak ere badira, eta azken hauen azterketatik ikasi dugu aditz eta osagarri motaren arabera SE-egiturek ez dutela jokabide morfologiko bera —eta halaxe gertatzen da baita katalanez ere—. Aditza iragankorra denean eta gaia bizigabea, gai argumentuak ez du erakusten osagarri baten jokabide morfologikoa: batetik, komunztadura egiten du aditz laguntzailearekin eta, bestetik, ezin daiteke klitiko batez bikoiztu, ezta topikalizazioan bezala, bikoizketa beha-

rrezkoa den kasuetan ere. Bi ezaugarri horiei dagokienez, beraz, gai argumentuak subjektu batek bezala jokatzen du. Horregatik, bi mota bereizten dira gaztelaniaren SE-egituretan, hots, SE-inpertsonalak eta SE-pasiboak. Hala ere, komunztadura eta klitikoaren kasua alde batera utzita, argi dago SE-pasiboak deritzeten horien gai argumentuak oraindik ere osagarria balitz bezala jokatzen duela, eta gainera sintaktikoki indarrean dagoen subjektu ezabatu bat ere dagoela. Ez dira hauek, beraz, Blevinsek (2003) pasibotzat hartzen dituen egituren parekoak, eta baliteke inper-tonalak izatea, guk hemen aldarrikatu dugun bezala edo bestelako analisiak tar-teko. Askotan bezala, batetik lortzen dugun sinplifikazioak (SE/ES pasibo eta in-pertsonalen bikoizketatik inper-tonal egitura bakar batera pasatzea), beste nonbait konplikazioak dakartza (bai komunztaduran bai, beharbada, izenordainen kasu ezarketan). Nolanahi ere den, badago zer aztertua SE-egituren jokabide morfosin-taktikoaren muina ulertu nahi badugu. Hualde bezalako ikertzaileek ondo dakiten bezala, argi-ilunak dira nagusi zientzian.

## Bibliografia

- Abrines, Bertomeu & Jaume Mateu. 2018. Els verbs de canvi d'estat del català i l'alternança causativa: una proposta sintàctica. *Studes romanes de Brno* 39(1). 139-161. <https://digilib.phil.muni.cz/handle/11222.digilib/138081> (2022-03-08).
- Albizu, Pablo. 1997. En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera. *Interlingüística* 8. 13-18.
- Albizu, Pablo. 2001. Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *ASJU* 35(1). 65-106.
- Alexiadou, Artemis, Elena Anagnostopoulou & Florian Schäfer. 2015. *External arguments in transitive alternations*. Oxford: Oxford University Press.
- Bartra, Anna. 2002. La passiva i les construccions que s'hi relacionen. In Joan Solà, Maria-Rosa Lloret, Joan Mascaró & Manuel Pérez Saldanya (arg.), *Gramàtica del català contemporani*. vol 2, 2111-2179. Barcelona: Empúries.
- Bartra, Anna. agertzeaz. Les construccions passives i impersonals. In Manuel Pérez Saldanya, Josep Martines & Gemma Rigau (arg.), *Gramàtica del català antic*. València: Publicacions de la Universitat de València.
- Berro, Ane, Bernard Oihartzabal & Beatriz Fernández. 2018. Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratorzen. *FLV* 126. 365-388.
- Berro, Ane & Beatriz Fernández. 2019. (Euskal) bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak. In Itziar Laka (arg.), *Hitzak sarean. Pello Salabururi eskerronez*, 47-64. Bilbo: Euskara Institutua & UPV/EHU.
- Berro, Ane, Ane Odria & Beatriz Fernández. 2022. Person matters in impersonality. *Syntax* 25(1). 1-41.
- Berro, Ane, Ane Odria & Beatriz Fernández. 2024. Indirect causatives in Basque: the syntax of implicit causees. Eskuizkribua, Deustuko Unibertsitatea & UPV/EHU.
- Blevins, James P. 2003. Passives and impersonals. *Journal of Linguistics* 39(3). 473-520.
- Brettschneider, Gunter. 1979. Typological characteristics of Basque. In Frans Plank (arg.), *Ergativity. Toward a Theory of Grammatical relations*, 371-384. New York: Academic Press.

- Cabredo-Hofherr, Patricia. 2017. Voice and voice alternations. In Elisabeth Stark & Andreas Dufter (arg.), *Manual of Romance morphosyntax and syntax*, 418-442. Berlin: de Gruyter.
- CICA = Torruella, Joan, Manuel Perez Saldanya & Josep Martines (zuz.). *Corpus Informatitzat del Català Antic*. <http://www.cica.cat> (2022-03-24).
- Cinque, Guglielmo. 1988. On *si* constructions and the theory of arb. *Linguistic Inquiry* 19. 521-582.
- Collins, Chris. 2005. A smuggling approach to the passive in English. *Syntax* 8. 81-120.
- Comrie, Bernard. 1977. In defense of spontaneous demotion: the impersonal passive. In Peter Cole & Jerrold M. Sadock (arg.), *Syntax and Semantics 8: Grammatical Relations*, 47-58. New York: Academic Press.
- Fabra, Pompeu. 1956. *Gramàtica catalana*. Barcelona: Teide.
- Fenger, Paula. 2018. How impersonal does one get? A study of *man*-pronouns in Germanic. *Journal of Comparative German Languages* 21. 291-325.
- Fernández, Beatriz & Milan Rezac. 2016. Differential object marking in Basque varieties. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*, 93-137. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Fernández, Beatriz & Ane Berro. 2021. Basque impersonals in comparison. *Linguistics. An Interdisciplinary Journal of the Language Sciences* 60(4). 1039-1101. <https://doi.org/10.1515/ling-2020-0057>.
- Guasti, Maria Teresa. 2006. Analytic causatives. In Martin Everaert & Henk van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax*, 142-172. Malden, MA: Blackwell.
- Guéron, Jaqueline. 2006. Inalienable possession. In Martin Everaert & Henk van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax*, 589-638. Malden, MA: Blackwell.
- Haspelmath, Martin. 1993. More on the typology of inchoative/causative verb alternations. In Bernard Comrie & Maria Polinsky (arg.), *Causatives and transitivity*, 87-120. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Hualde, José Ignacio. 1986. Case assignment in Basque. *ASJU* 22(1). 313-330.
- Hualde, José Ignacio. 1992. *Catalan*. Londres/New York: Routledge.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Verbs. Finite forms. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 205-246. Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 1987. Reestructuring with ARI. *ASJU* 21(2). 425-452.
- Institut d'Estudis Catalans. 2016. *Gramàtica de la llengua catalana (GLC)*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans.
- IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea). 2009. *IVAPeko estilo-liburua*. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Jané, Albert. 1998. Sobre l'ús impersonal del pronom *es*. *Llengua nacional* 23. 20-23.
- Jaeggli, Osvaldo. 1986. Passive. *Linguistic Inquiry* 17(4). 587-622.
- Kibort, Anna. 2004. *Passive and passive-like constructions in English and Polish*. Cambridge: University of Cambridgeko doktorego tesia.
- Kulikov, Leonid. 2010. Voice typology. In Jae Jung Song (arg.), *The Oxford Handbook of Linguistic Typology*, 368-398. Oxford: Oxford University Press.
- Landau, Idan. 2010. The explicit syntax of implicit arguments. *Linguistic Inquiry* 41(3). 357-388.

- Le Bruyn, Bert. 2014. Inalienable possession. The status of the article. In Ana Aguilar-Guevara, Bert Le Bruyn & Joost Zwarts, *Weak referentiality*, 311-334. John Benjamins Publishing Company.
- Legate, Julie Anne, Faruk Akkuş, Milena Šereikaitė & Don Ringe. 2020. On passives of passives. *Language* 96 (4). 771-818.
- MacDonald, Jonathan E. 2017. An implicit projected argument in Spanish impersonal and passive-*se* constructions. *Syntax* 20(4). 353-383.
- Mendikoetxea, Amaya. 1999. Construcciones con *se*: medias, pasivas e impersonales. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Vol. 2, 1631-1722. Madrid: Espasa Calpe.
- Mendikoetxea, Amaya. 2012. Passive and *se* constructions. In José Ignacio Hualde, Antxon Olarrea & Erdin O'Rourke (arg.), *The handbook of Hispanic Linguistics*, 477-502. Oxford: Blackwell Publishing.
- Oca, Eduardo. 1914. El pronombre *se* en nominativo. *Boletín de la Real Academia Española* 1. 573-581.
- Odria, Ane. 2017. *Differential object marking and datives in Basque syntax*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2019. The formal properties of non paradigmatic *SE*. *Borealis* 8. 55-84.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1991. Deskribapenetik azalpenetara euskal gramatikan. In Adolfo Arejita (arg.), *Euskal Sintaxiaz*, 11-27. Bilbo: Labayru.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, 572-591. Berlin: de Gruyter.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2006. Old Basque (medio)passives. *ASJU* 40. 763-786.
- Oihartzabal, Beñat. 2003. Lexical causatives and causative alternation in Basque. In Beñat Oihartzabal (arg.), *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque (ASJUren Gehigarriak 46)*, 223-253. Bilbo & Donostia: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Pitteroff, Marcel & Florian Schäfer. 2019. Implicit control crosslinguistically. *Language* 95. 136-184.
- Real Academia de la Lengua Española / Asociación de Academias de la Lengua Española (RAE-ASALE). 2009. *Nueva gramática de la lengua española (NGLE)*. Madrid: Espasa.
- Rigau, Gemma. 1991. On the functional properties of AGR. *Catalan Papers Working on Linguistics* 1. 235-260.
- Rodet, Ana. 1992. Construccions amb lectura arbitrària en basc. *ASJU* 26. 145-179.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): The MIT Press.
- Siewierska, Anna. 1984. *Passive: a cross-linguistic study*. London: Croom Helm.
- Siewierska, Anna. 1988. The passive in Slavic. In Masayoshi Shibatani (arg.), *Passive and voice. Typological Studies in Language*, 243-289. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Solà, Joan. 1973. *Estudis de Sintaxi Catalana*, 2. lib. Barcelona: Edicions 62.
- Solà, Joan. 1987. *Qüestions Controvertides de Sintaxi Catalana*. Barcelona: Edicions 62.
- Urrestarazu, Iñigo. 2019. *Nire barruko Setatsua: (euskal) boza eta erdiko egiturak*. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lana.



- Torn, Reeli. 2002. The status of the passive in English and Estonian. In Hendriks Henriëtte (arg.), *Working Papers in English and Applied Linguistics* 7, 81-106. Cambridge: Research Centre for English and Applied Linguistics.
- Wheeler, Max W., Alan Yates & Nicolau Dols. 1999. *Catalan: A comprehensive grammar*. London: Routledge.
- Zribi-Hertz, Anne. 1982. La construction 'se-moyen' du français et son statut dans le triangle moyen-passif-réfléchi. *Linguisticae Investigationes. International Journal of Linguistics and Language Resources* 6, 345-401. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.